



**Mondragon
Unibertsitatea**

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

**DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN, BATXILERGOAN,
LANBIDE HEZIKETAN ETA HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAN
IRAKASLE GISA ARITZEKO GAITZEN DUEN UNIBERTSITATE
MASTER OFIZIALA**

Master Bukaerako Lana (MBL)

HUHEZI

Maidor Azkarraga-Urizar Arana

Maria Heriz Altuna

Ainhoa Urzelai Vicente

LITERATURAREN IRAKASKUNTZA BATXILERGOKO

2. MAILAN: ARIZMENDI IKASTOLAKO ALMEN

GUNEKO EGOERAREN DIAGNOSIA ETA

PROPOSAMENAK

AGIRIA

Jarraian jaso den Master Bukaerako Lanaren egileek, baimena ematen diogu Mondragon Unibertsitateari Master Bukaerako Lanari jendaurrean zabalkundea emateko eta erreproduzitzeko; soilik ikerketan eta hezkuntzan erabiltzeko eta doakoa izateko baldintzarekin. Baimendutako erabilera honetan, egilea nor den azaldu beharko da beti, eragotzita egongo da erabilera komertziala baita lan originaletatik lan berriak eratortzea ere.

Las autoras del siguiente Trabajo Fin de Máster, autorizamos a Mondragon Unibertsitatea, con carácter gratuito y con fines exclusivamente de investigación y docencia, los derechos de reproducción y comunicación pública de este documento siempre que: se cite el autor/la autora original, el uso que se haga de la obra no sea comercial y no se cree una obra derivada a partir del original.

Lanaren izenburua: Literaturaren irakaskuntza batxilergoko 2.mailan

Autoreak: Maider Azkarraga-Urizar Arana, Maria Heriz Altuna, Ainhoa Urzelai Vicente

Fakultatea eta empresa: Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea eta Arizmendi Ikastola

Eta horrela jasota gera dadin beharrezkoa denerako, agiri hau izenpetzen dugu, Arrasaten, 2021eko martxoaren 3an.

Maider Azkarraga-Urizar Arana

Maria Heriz Altuna

Ainhoa Urzelai Vicente





**Mondragon
Unibertsitatea**

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN, BATXILERGOAN,
LANBIDE HEZIKETAN ETA HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAN
IRAKASLE GISA ARITZEKO GAITZEN DUEN UNIBERTSITATE
MASTER OFIZIALA

**LITERATURAREN IRAKASKUNTZA BATXILERGOKO 2.
MAILAN: ARIZMENDI IKASTOLAKO ALMEN GUNEKO
EGOERAREN DIAGNOSIA ETA PROPOSAMENAK**

IKASTURTEA: 2018-2019

MAIDER AZKARRAGA-URIZAR ARANA
MARIA HERIZ ALTUNA
AINHOA URZELAI VICENTE

TUTOREA: XABIER HERNANDEZ LLONA

HUHEZI

2019-07-03

Abstract: Ondorengo MBL honetan literaturaren irakaskuntza aztertzen da Batxilergoko 2. mailan, zehazki, Arizmendi Ikastolako Almen gunean arreta jarritz. Aztergai dugun gaia Euskara eta Literatura ikasgaiaren ematen da eta bertan literaturak duen garrantzia ikertu dugu. Horretarako, ikasleek erabiltzen duten materialari erreparatu diogu, arloko irakaslea elkarrizketatu dugu eta ikasleei inkestak pasa dizkiegu. Euskara eta Literatura arloan zentratu garen arren, erkaketak egin ditugu Gaztelania eta Ingeleseko ikasgaiekin, horietan ere literatura lantzen den (eta hala bada, nola eta zenbateraino irakasten den) ikusteko. Analisisiaz gain, hezkuntza literarioan ikusi ditugun hutsuneak identifikatzen saiatu gara eta horien arazoia zein den bistaratzen ahalegindu gara. Bestalde, ikusitako hutsuneak gainditzen saiatzeko proposamenak egin ditugu. Horiek Almen gunerako proposatu ditugu, nahiz eta uste dugun proposamen horiek beste ikastetxe batera eraman daitezkeela, betiere testuingurua kontuan hartuta eta tokian tokiko moldaketak eginda.

Gako-hitzak: literaturaren irakaskuntza/didaktika, Batxilergoa, ingeles, espainiar eta euskal literatura, hezkuntza literarioa, Konfiantzaren Pedagogia.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	1
2. ARIZMENDI IKASTOLAREN AURKEZPENA	1
3. MARKO TEORIKOA	4
3.1. KONFIANTZAREN PEDAGOGIA	4
3.2. LITERATURAREN IRAKASKUNTZA	8
3.3. <i>DEEP LEARNING</i> EDO IKASKUNTZA SAKONA	13
3.4. HEZIBERRI 2020 ETA EUSKAL CURRICULUMA	16
4. MARKO METODOLOGIKOA	19
5. CORPUSAREN AZTERKETA	20
5.1. IRAKASLEARI ELKARRIZKETA	21
5.1.1. METODOLOGIA ETA MATERIALAREN GARAPENA	21
5.1.2. ANTOLAKETA	22
5.1.3. LITERATURAREN IRAKASKUNTZAK DITUEN ERRONKAK	22
5.1.4. SORMENAK GELAN DUEN TOKIA	24
5.2. ERABILITAKO MATERIALA	25
5.3. IRAKURZALETASUNA SUSTATZEKO TAILERRA GALTZAGORRIREKIN	27
5.4. INKESTAK	27
6. ONDORIOAK ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK	56
7. BIBLIOGRAFIA	64
8. ERANSKINAK	1
1. ERANSKINA: LITERATURA LANTZEKO HAINBAT BALIABIDE ETA JARDUERA	1
1.1. BALIABIDEAK	1
1.2. JARDUERAK	2
2. ERANSKINA: IRAKASLEARI EGINDAKO ELKARRIZKETA	8
3. ERANSKINA: LIBURU-PROBAK	9
4. ERANSKINA: IKASLEEI EGINDAKO GALDETEGIA	11

1. SARRERA

Lan hau praktketan ikusitako hutsune batetik abiatzen da. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen unibertsitate masterrean (BH Masterra) praktika batzuk egiteko parada izan dugu ikasturte honetan, eta guk Arizmendi Ikastolan egiteko aukera izan dugu, Gaztelupe eta Almen guneeetan. Hala ere, gure ikerketa Almen gunera mugatzea erabaki dugu; bi guneeetan programazio zein metodologia berberak baliatzen direla jakinda.

Arloari dagokionez, Hizkuntzak eta Literaturako espezialitatea egiten ari gara, eta beraz, ikastolan Euskara eta Literatura eta Ingelesa ikasgaietan aritu gara. Arlo horretako irakasle guztiek hutsune bera ikusi dute geletako programazioetan: literatura ez omen da behar bezala lantzen. Horren arrazoi nagusia, Jaione Agirre irakasleak azpimarratu duen bezala, honako hau da: “Ordutegiak asko baldintzatzen du (...) denbora falta da gure arazo nagusienetarikoa” (komunikazio pertsonala, 2019ko maiatzaren 17an). Hutsune hori, baina, identifikatuta egon arren, urtez urte errepikatzen den arazoa da. Irakasleek diotenez, gaur-gaurkoz, ez dute hutsune horri aurre egiteko aukerarik izan. Lan honen helburua, beraz, dauden hutsuneak identifikatzea izango da, etorkizunean proposamen garatuago bat egin ahal izateko; eraldaketaren hasikinak dira hurrengo orrietan aurkeztuko ditugunak.


Ikerketa hau galdera jakin batzuetatik abiatzen da. Lehenik eta behin, jakin nahiko genuke ea ikasleek zein ezagutzarekin amaitzen duten Batxilergoko etapa. Bigarrenik, ea posible ote den Batxilergoko plangintza estu horretan, zeina Hautapropa egitera bideratuta dagoen, literaturaren irakaskuntza sakona egitea.

2. ARIZMENDI IKASTOLAREN AURKEZPENA

Gure ikerketa Almen gunera mugatuko dugun arren, ezinbestekoa iruditzen zaigu Arizmendi ikastolaren gaineko oinarrizko informazioa ematea, gerora emango ditugun azalpenak hobeto ulertzeko.

Arizmendi ikastola Leintz Bailaran kokatzen den hezkuntza-kooperatiba euskalduna da, eta 2003an sortu zen hezkuntza kooperatiba integral bezala, Leintz Bailarako bost ikastolen bateratzearekin. Hala ere, irudiak adierazten duen bezala, gaur egun hamabi gune ditu hiru herritan banatuta: bederatzi Arrasaten (Arimazubi, Ferixalekua, Gazteluondo, Gaztelupe, Olarte,

Santa Teresa, Umezaintza, Uribarri, Zaldibar), bat Aretxabaletan (Basabeazpi) eta bi Eskoriatzan (Jose Arana eta Almen). 30.000 biztanle inguru dituen bailara honetan, 3.000 matrikulazio gutxi gorabehera jasotzen ditu ikastolak urtero. Zehatzagoak izateko, guztira, 3.203 ikasle, 4.504 guraso, 246 profesional, 696 lankide, 6 entitate kolaboratzaile eta 276 begirale ditu Arizmendik (Altube, 2018). Aipatzekoa da Euskal Herriko ikastolarik handiena dela. Hezkuntza eskaintza 0 urtetik 21 urtera artekoa da; hau da, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa eskaintzen ditu. Hori guztia dela eta, errealitate ugari gordetzen ditu ikastolak bere baitan. Ezin aipatu gabe utzi Arizmendik arreta berezia jartzen diola Hezkuntza Ez Formalari, eta horrekin lotuta, udalekuak, eskola-kirola zein bestelako zerbitzuak eskaintzen dituela (Arizmendi Ikastola, 2019).



1. Irudia. Arizmendi ikastolako guneen kokapena. Iturria: Arizmendi Ikastola (2019).

Ikuspegi orokor bat hartuz, naturaz inguraturiko eta herri industrialez osaturiko bailara dela esan daiteke. Bigarren eta hirugarren sektoreek indar handia dute, eta, beraz, enpresa ugari

daude bertan kokatuta. Aipatzekoa da Leintz Bailarak enpresa berritzaileen portzentaje altuena duela EAEan. Langabezia tasak, berriz, ez du biztanleriaren %10 gainditzen. Horrela, maila ekonomiko oparoa duen bailara bezala definitu daiteke. Bestalde, zerbitzu eta aisialdirako gune eta espazio ugari eskaintzen ditu. Kulturaren alorra ere aberatsa da, eta liburutegi, antzoki, gazte elkarte eta bestelako taldeek kultura gozatzeko aukera ugari eskaintzen dituzte. Bertako biztanleei dagokienez, gehienak bertan jaiotakoak dira eta kanpotik etorritakoek ehuneko txiki bat betetzen dute. Esan beharra dago, lan eskaintzak direla eta, etorkin gehienak Arrasaten bizi direla. Atzerriko herrialdeetatik datozen familiek aniztasun sozio-kulturala sortzen dute.

Arizmendi ikastolara itzulita, bere misio nagusia gizartea eraldatzen subjektu aktibo izango diren pertsona euskaldun, kooperatibo eta konpetenteak garatzen laguntzea da, eta helburu hori Konfiantzaren Pedagogian oinarritutako eredu kooperatiboaren bidez lortu nahi dute. Konfiantzaren Pedagogia pertsonaren gaineko ikuspegi positiboan, dinamikoan eta ebolutiboan oinarritzen da, eta norbere buruarekiko, besteekiko eta inguruarekiko konfiantzan jartzen du azpimarra. Lau eraldaketa mota ditu abiapuntu Arizmendik. Lehenengo eraldaketa pertsonala (norberaren eraldaketatik hasi behar baita kontua). Bigarrenik, eraldaketa pedagogikoa. Hirugarrenik, eraldaketa pedagogikoari erantzuten dion eraldaketa arkitektonikoa gauzatu behar da. Eta azkenik, aurreko hiru pausoak emanda, gizarte eraldaketa. Eraldaketa arkitektonikoari dagokionez, azpimarratzekoa da azken urteotan Arizmendik inbertsio handia egin duela eta izugarritzko obrak egin dituela espazio fisikoa pedagogia berritzailea gauzatu ahal izateko (gaur egun, DBH da eraldatzeko falta den etapa bakarra). Eraldaketa arkitektonikoa berritzailea da oso; izan ere, espazio irekiak, argiak eta sormenerako egokiak sortu dituzte. Horma zurrunen ordez, leiho eta kristal garden ugari daude; eta talde-lanean aritzeko, besaulkiak, gela bereziak eta bestelako espazio mugikorak sortu dituzte. Hori horrela, eta gure arlora ekarrita, esan beharra dago ikastetxearen espazio fisikoaren antolaketa berriak proiektu bidezko metodologia martxan jartzea erraztu duela (Arizmendi Ikastola, 2019).

Arizmendi Ikastolak eraldaketa pedagogikoan jarri du begirada azken urteetan eta ondorioz, arlo batzuek ez dute behar bezalako garapena izan. Arestian aipatu bezala, Arizmendi aldaketa pedagogiko eta arkitektonikoa egiten ari da. Luze joko duen eraldaketa bat da, sustraieratik hasita, lehenengo pedagogia guztia aldatu nahi baita. Oraingoz enborrharen garapen fasean dihardute eta ez dira adarretara iritsi; hots, ez dira arloz arloko programazioa eraldatzera iritsi. Horregatik, nahiz eta urtez urte literaturaren lanketan aldaketa beharra antzeman duten arlo horretako irakasleek, oraindik ez zaio lan horri heldu, indarrak pedagogia aldaketa orokor

horretan jarri dituztelako. Horrenbestez, guk aztertuko dugun adarra hurrengo urteetan inausi beharko da, adar berri hobeaz hazi dadin.

3. MARKO TEORIKOA

3.1. KONFIANTZAREN PEDAGOGIA

Arizmendi Ikastolaren hezkuntza jarduera guztiek helburu nagusi bat dute: bizitzako egoerei erantzuten dakiten eta erantzuten dieten pertsona euskaldun kooperatiboak garatzen laguntzea. Horretarako, tresna gisa, Konfiantzaren Pedagogia darabilte. Hortik abiatuta jarriko da martxan gainerako guztia, beraz.

Pedagogiaren oinarri zientifikoan pertsona bakoitza begiratzeko modua dago, eta psikologia humanistarekin bat egiten duen ikuspegia da, beraz. Hortik edaten du, hortaz, pedagogia korronte horrek (Antero, 2015). Horretaz gain, lehenik, etologia, pertsonaren portaerak, beharrak eta horiei egoki erantzuteko beharra kontuan hartuko ditu; baita gizakien senak behatu eta horiei erantzuteko beharra ere. Bigarrenik, konduktismoa hartzen da kontuan; hemen, hainbat adituren teoriak baliatzen dira: Pavlovena (animalia zein gizakiok estimulu natural eta neutroen artean loturak egiteko dugun gaitasuna, eta lotura horiek gure bizipen eta portaeretan duten eragina); Skinnerrena (errefortzu edo zigorren bidez, ekintzak finkatu edo desagerrarazi egin daitezkeela frogatu zueneko); eta Bandurarena (haurrek hainbat portaera bestek egiten dutena behatuz, barneratzen dituztela frogatu zueneko). Hirugarrenik, pedagogia soziokonstruktiboa du oinarri; pedagogia horretan pertsona bera dago oinarri, bere esperientzia, oinarri kognitiboa... eta Piaget, Ausubel, Novak eta Vygotsky autoreen teoriak ere hartzen ditu kontuan Konfiantzaren Pedagogiak. Ezagutza aztertzeaz arduratzen den psikologia kognitiboa ere badu oinarri. Eta azkenik, baita neurozientziaren aurrerapenak ere (Antero, 2015).

Ikasi eta irakasteko moduak ere, beraz, aldatu egin dira ikastolan; motibazioa mobilizatzea, ikaskuntza aktiboa ardatz izatea, ebaluazio hezigarria praktikatzea eta adimen aniztunak lantzea baitu egun Arizmendik helburu. Jarduteko moduak ere bestelakoak dira ondorioz: irakasleen, gurasoen eta ikasleen egitekoa, lan egiteko modua, espazioak, denborak eta beste hainbat aspektu ere aldatu egin baitira lehenago zituztenetatik. Hori gutxi balitz, egun hezkuntza sisteman kontuan hartzea kostatzen den ikaslearen gaitasunak, zailtasunak eta ametsak aintzat hartuko dira. Konfiantzaren pedagogiaren bidez, horiek praktikara eramateko

zaintza eta garapen eremuak, testuinguruak eta ikasi eta irakasteko moduak aldatuko dira (Antero, 2015).

Pedagogia garatzeko ere baldintza batzuk bete beharra dago. Horiek bete ezean, nekez aterako baita pentsatutakoa aurrera. Alde batetik, pertsonaren garapenerako eta zaintzarako baldintzak betetzea leudeke. Aipatutakoa senak landuz egingo litzateke; pertsonari pizten zaizkion beharrei modu egokian erantzunez. Baita gaitasunak identifikatu, balioetsi eta garatzen lagunduz ere. Izan ere, pertsona bakoitzak hainbat gaitasun eta potentzial ditu. Hala



2. Irudia. Konfiantzaren Pedagogiaren logotipoa. Iturria: Arizmendi (2019).

ere, badira laguntzarekin garatu ditzakegun beste hainbat gaitasun ere. Beraz, hezitzaile eta irakasleak gazteek dituzten gaitasunak eta garatu ditzaketenak identifikatzen jakiteak eragin zuzena izango du horien autokontzeptuan, autoestimuan eta baita bokazioen aurkikuntzan ere. Beraz, garrantzitsuak izango dira, Anterok (2015) azpimarratu bezala, ondorengo puntuak:

- “Senak lantzea
- Gaitasunak identifikatzea eta garatzen laguntzea.
- Ikaslearen zailtasunak garaiz hautematea eta kudeatzen laguntzea.
- Sufrimenduari enpatizatzea.
- Zaintzaileak zaintzea: Harreman onen beharra” (Antero, 2015: 67-80).

Bestetik, testuinguruaren baldintzak ere kontuan hartu beharko dira komunitatearekin lotura eginez, familia, hezkuntza komunitatea eta gizartearen artean, hain zuzen. Ikastolak familiarekin harreman estua izatea beharrezkoa izango da haurrak ikastolako hezitzaileengan konfiantza izan dezan (Antero, 2015). Ez hori bakarrik, Garciak (2003) azpimarratzen duenez, irakaslearen eta gurasoen arteko erlazioak onura ugari dakartza. Batetik, ikaslearen testuingurua ezagutzeko ezinbestekoa da. Bestetik, ezin dugu ahaztu gurasoak direla beraien seme-alaben lehenengo hezitzaileak eta irakasleak. Gainera, ezin ahaztu gurasoek eta irakasleak duten helburua berdina dela: seme edo alabaren edo ikaslearen heziketa integrala eta ongizatea lortzea. Beraz, logikoa da biak elkarlanean aritzea, helburuak lortzea errazagoa izango baita. Esandakoa azpimarratuz, eskola eta familiaren arteko harremanaren onuraduna ez da ikaslea soilik, guraso, irakasle zein ikastetxeek ere hortik edaten baitute (Garcia, 2003). Ezinbesteko baldintza da ulertzea ezin dela ikaslearen eskolako bizitza eta ikaslearen etxeko bizitza banatu, hau da, eskola eta familiaren arteko lankidetzak beharrezkoa dela (Garcia, 2003).

Bestalde, espazioak (ikaste-prozesuan aurrerapenak izateko), denborak (gaztearen erritmo biologikoa eta kognitiboa errespetatuz, ikaskuntza hobea izateko), arretaren iraupenak (adinaren arabera, arreta mantentzeko denbora tarteak ere aldatu egiten baitira); eta bukatzeko, ikasleen erritmo ezberdinak errespetatzea ere garrantzitsua izango da bakoitzaren ikaskuntza-prozesua arrakastatsua izan dadin (Antero, 2015). Ondoren, gelan giro atsegina sortzea ere garrantzitsua izango da. Hasteko, harremanak ikasturte hasieratik ahalik eta modu egokienean eraikitzen joatea garrantzitsua izango da; harreman horiek ondo egitea ezinbestekoak izango baitira gero talde lanean behar bezala jarduteko. Bidenabar, aipatu beharra dago irakasle eta gurasoek egiteko garrantzitsua dutela lan horretan. Horretaz gain, komunikatzeko moduak ere egokiak izan beharko dira. Izan ere, sentitzen duguna onartzea bezain garrantzitsua da sentitzen dugun hori besteari modu egokian komunikatzen asmatzea ere (Antero, 2015). Aipatutako talde horiek eraginkorrak izatea ere kontuan hartu beharra dago. Horretarako, interesgarria da jarduerak duen helburuaren arabera ikaslearen ezaugarriak zein adimen motak ere kontuan hartzea taldekatzerako orduan; eta noski, baita profil linguistikoa ere. Ikasle euskaldunak sortzea baita ikastolaren helburua. Beraz, hezkuntza-ibilbideak euskaraz bizitzeko hautua egitera bultzatu nahi ditu irakasleak. Honenbestez, taldeak egiterakoan garrantzia izango dute lider linguistikoak; helburu horri begira bete dezaketen funtzioari erreparatu nahi baitzaio bereziki. Azkenik, adin arteko komunikazioa bermatu eta genero aniztasuna aberastasun gisa ikusi eta hori horrela ikusteko baliabideak eman beharko dira (Antero, 2015).


Eskolak haur guztientzat leku segurua izan behar du, norbera dena hazi eta garatzeko leku segurua. Horregatik, erabakigarria izango da sexu-identitatea onartua eta errespetatua izan dadin (...) Familiaren ostean, eskola da ingururik garrantzizkoena haur gehientzat. Horregatik, erabakigarria izango da eskola ingurunean transexualitate egoeran dauden haur eta gazteen sexu identitatea onartua eta errespetatua izatea (Naizen, 2019).

Irakatsi eta ikasteko baldintzak kontuan hartuz, testuinguruaz gain, irakasleak ere baldintza batzuk bete beharko ditu ikaslearen ikasketa prozesua arrakastatsua izan dadin; beraz, lehenago aipatu bezala, irakatsi eta ikasteko baldintzak aldatu egin beharko dira. Horretarako, ondorengoak egin beharko dira, Anterok (2015) Konfiantzaren Pedagogia liburuan zerrendatu bezala. Lehenengo, **motibazioa** mobilizatu beharko da. Ezinbestekoa izango da ikaslearengan motibazioa piztea, ondoren datorrenean arreta jarri dezan. Bigarrenik, **ikaskuntza aktiboa** ardatz izan beharko da. Izan ere, besteei azaltzen diegunean ikasten omen dugu gehien, eta irakurtzen dugunaren zati txiki bat baino ez dugu gordetzen. Gauzak horrela, aipatutakoa ezinbestekoa da irakaskuntzan. Hirugarrenik, **pentsamendua** legoke; ikasleei beraien pensamendua diseinatzeko eta antolatzen lagundu behar zaie, ikaskuntzaren jabe izan daitezten. Anterok (2015) azpimarratu bezala, Swartzek (2008) pensamendu sortzailearen eta kritikoaren inguruko teorizazio eta aplikazioan ikasleekin pensamenduak garatzeko honako trebetasunak landu beharko liratekeela aipatzen du: arazoak konpontzen ikastea, arazoaren aurrean irtenbideak aurkitzen ikastea eta kontzeptualizatzen ikastea, sakoneko ulermen mailara iritsiz¹. Horretarako, baina, alde batetik, hiru alderdi komunikatibo hartu behar ditugu kontuan: informazioaren komunikazioa, elkarrekintza arautzeko komunikazioa eta konfiantza eta afektuzko komunikazioa. Eta, bestetik, esperimentazioa eta manipulazioa. Ikasleek esperimentatuz, ukituz, sentituz eta ludikotasunaren bidez jasotzen ditugun ezagutzak errazago finkatzen ditu epe luzerako memorian (Antero, 2015).

Hala ere, konfiantzaren pedagogian guztia alferrikako lana izango da **ebaluazio hezigarria** oinarri hartu ezean. Horretarako, beraz, helburua zein izango den argi izatea garrantzitsua izango da, komeni zaion ebaluazio hori horrelakoa izan dadin. Ebaluazioaren azken helburua irakaskuntza zein ikas-prozesuak arautzea izango da. Hau da, ikasleek nora iritsi behar duten, non dauden eta bidean zein urrats eman behar dituzten finkatzea (Antero, 2015).

¹ Aurrerago landuko dugu sakoneko ikaskuntza edo Deep Learning kontzeptua.

Bukatzeko, **adimen aniztunak** ere landu beharko dira. Gardnerrek (1995) zazpi adimen proposatu zituen bere lehen lanean eta, geroago, Gardnerrek berak (2000) lanean gehitu zuen zortzigarrena ere. Adimen horiek: linguistikoa, logiko-matematikoa, espaziala, kinestesikoa, musikala, pertsona artekoa, pertsonaren barrukoa eta naturalista dira.



3. Irudia. Adimen aniztunak. Iturria: Gardner (2000) lanetik hartua eta guk moldatua eta euskaratua.

Adimen mota horien arabera, ikaslearen gaitasun, gustu eta ahuleziak ere ezberdinak izango dira; ikasleak beraiek ere ezberdinak diren bezala. Hori kontuan izanda, beraz, Anterok (2015) Konfiantzaren Pedagogiaren bidez horiek landu beharko direla defendatzen du.

3.2. LITERATURAREN IRAKASKUNTZA

Ezer baino lehen, azpimarratzekoa da, oro har, literatura hizkuntzarekin lotuta irakatsi ohi dela eskoletan; hau da, euskal literatura Euskara eta Literatura ikasgaietan ematen da, eta ingeles zein espainiar literatura, berriz, Ingelesa eta Gaztelania (batzuetan Lengua y Literatura) ikasgaietan hurrenez hurren. Zenbait ikastetxetan, ordea, Literatura Unibertsala izeneko ikasgaia hautatzeko eskaintza izan ohi dute ikasleek, eta bertan, izenak iradokitzen duen bezala, literatura arlo beregain gisa lantzen da. Hala ere, aukera hori Batxilergo humanistikoa egiten duten ikasleei zuzenduta egon ohi da soilik, eta, esan bezala, adar horretako ikasleentzat ere hautazkoa izan ohi da. Beraz, literatura hizkuntzaren ikaskuntzari estuki lotuta lantzen da gehienetan, eta aurrerago azalduko dugun moduan, haren mesedetan erabiltzen da maiz, literaturaren kaltetan.

Menpekotasun egoera hori ez da literaturaren irakaskuntzak duen arazo bakarra; izan ere, literaturaren irakaskuntza bera sistematizatu gabeko kontua da. Ondorioz, irakaslearen esku

geratzen da maiz zein eduki, genero, obra eta autore landu eta zer baztertu erabakitzea. Gaztelanian ez bezala, Euskara eta Literaturako zein Ingeleseko Hautaprobetan ez da literatura modu zuzenean sartzen. Ez da berariaz lantzen, bai, ordea, zeharka, ortografia, adierazmena eta beste hainbat arlo lantzeko testu literarioak baliatzen baitira. Zuzenean sartzen ez denez, irakasleek garrantzi handiagoa ematen diote hizkuntzaren bestelako alderdiak lantzeari: gramatika, berridazketak, aditzak... Hau da, literatur testuak erabiltzen badira, beti hizkuntzaren mesedetan erabili ohi dira, eta ez zaie alderdi estetikoak erreparatu. Zer esanik ez alderdi ludikoari. Ildo beretik, ezin aipatu gabe utzi literatura hizkuntzak ikasteko erabil daitekeela eta tamalez, oro har funtzio horren mesedetan erabiltzen dela.

Hirugarren arazo bat aipatzearen, irakasleen artean ez dago erabateko adostasunik literaturaren funtzio nagusiaren inguruan. Ezer baino lehen, **ezinbestekoa iruditzen zaigu literaturaren helburu nagusia zein den erabakitzea eta hori egin ostean has daiteke irakaslea eskolak ematen**. Gure ustez, literaturaren helburu nagusia gozamina sortzea da. Ukaezina da literaturak funtzio anitz bete ditzakeela. Hori horrela, gelako beharren eta eskakizunen arabera, irakasleak era batera edo bestera erabil dezake literatura, baina argi izanik funtzio behinena irakurlearengan gozamina sortzea dela. Bernardo Atxagak (Hik Hasi, 2016) ildo beretik jotzen du:

Sortzea nik lotzen dut beti alaitasunarekin eta bizipozarekin, eta uste dut arteak ematen duena, hain zuzen hori dela. Alaitasuna diot, ez dut esaten poxa, baizik eta alaitasuna zentzurik sakonenean (...) Barojaren obra bat irakurtzean... esaten dut “ze ondo, ze alaitasuna, ze poxa, nola ikusten dudana mundua Barojaren bidez!

Atxagaren bide beretik jotzen du Apalategik (1998) ere literaturaren funtzioez berba egitean:

Literatura bere buruarekiko galera esistentzialetan (sic) murgildu zen urte batzuez: zertarako egin literatura? 80. hamarkadaren hasierako literaturaren “krisi” famatua ezinbestez, euskal idazleak ez zeuden xede extra-literarioek (sic) eraginik gabe idazten ohituak. Noski, idazle gazte batzuk bazeramaten denbora bat literatura instrumentalizatu gabea egin behar zela aldarrikatuz eta Literaturak ez zuela inongo justifikazio ez eta baliagarritasun sozial zein erlijioso nahiz linguistikorik behar, baina ez al ziren aldarrikapen horiek basamortuan (...) egindako oihu antzuak?

Bestalde, literatura errutinak edo egunerokoak sortzen dituen hersturetatik ihes egiteko modu bat izan daiteke, adibidez, barne-mina sendatzeko. Ildo beretik, funtzio terapeutikoa bete dezake mintzagai dugun zientziak, funtzio katartikoa, baita norbere burua ezagutzeko ere (Kohan, 2002). Adibidez, jendarte heteropatriarkalak araututako eredutik kanpo aurkitzen direnek identifikazio bat senti dezakete obretako pertsonaiaren batekin eta askatasun lurralde gisa bizi dezakete literatura. Ildo beretik jotzen du Apalategik ere. Bere ustez, garrantzitsua da hautatzen diren obrek ezaugarri bat betetzea: ikasleari balio behar diote bizi den jendarte eta bere burua hobeto ulertzeko (Matxain, 2015). Horrez gain, norbere burua aldatzeko eta mundua eraldatzeko tresna izan liteke. Haurrek, gazteek zein helduek haien ikuspegi kritikoa sortzeko ere balio beharko luke literaturak. Aurrez aipatutako funtzioetatik apur bat aldenduz, aipatzekoa da literaturak jakintza batzuk transmititzeko, propaganda egiteko, adoktrinatzeko edo balore moral batzuk transmititzeko funtzioa bete dezakeela. Halbwachs soziologoak (1925, 1950) bere bi lan aitzindarietan landutakoaren ildotik, literaturak memoria kolektiboa eraikitzen eragin handia izan dezake. Ez hori bakarrik, ezin aipatu gabe utzi funtzio nazionala izan dezakeela mintzagai dugun zientziak, hau da, nazio eraikuntzarako tresna izan daitekeela. Eginkizun horiek guztiak gogoan izanda, irakasleak erabaki behar du, momentuko beharren arabera, horietatik zein hobetsiko duen. Helburu horrek zehaztuko du egin beharreko jardueren diseinua eta inplementazioa.

Ezin gara laugarren problematika batez ahaztu: giza-zientzien eta humanitateen prestigio falta hezkuntzan eta jendartean oro har (natur zientzien mesedetan). Gauza jakina da humanitateei ez zaiela natur-zientziei bezainbesteko garrantzia aitortzen, horixe adierazten dute hainbat ikerketek (Alvarez, 2018; Aunión, 2008; Pascual, 2012). DBHko azken mailetan eta Batxilergoan nabarmen antzematen da uste orokortu hori. Ikasle gehienek duten iritzietako bat da humanitateko hainbat adarrek ez dutela balio etorkizun on bat bermatzeko, alegia, ez dutela lan on bat bilatzeko balio.

Literaturaren irakaskuntzatik hezkuntza literariora igarotzeko beharra

Colomer-ek (1991) literaturaren irakaskuntzatik hezkuntza literariora jauzi egitea proposatzen du. Egia da urteetan zehar literatura irakatsi dela literaturaren historia irakatsiz, baina gaur egun hezkuntza literarioaren aldeko apustua egiten da. Horrek paradigma aldaketa bat dakar. Lomas-ek (2002) aipatzen duen moduan, hezkuntza literarioa pertsona orok duen eskubidea da. Colomerrek (1991) azpimarratzen duen moduan, ikasleak literatur testuak

ulertzeko gaitasun eta konpetentziak garatu behar ditu, hau da, jakintza/konpetentzia literarioa erdietsi behar du (ondoren literatur testuak ulertzeko). Bierwisch-i jarraiki, konpetentzia literarioa egitura poetikoen ekoizpena eta harrera ahalbidetzen duen giza gaitasuna da (Colomer, 1998) eta ez da sortzetikoa, hau da, ikasi egiten da. Zaletasunarekin batera gaitasuna landu behar da. Beste hitz batzuetan esanda, hezkuntza literariora heltzeko gaitasun literarioak behar dira, ez da nahikoa zaletasuna izatea. Gainera, zenbat eta ezagutza (eta trebakuntza) handiagoa izan, orduan eta gozamen handiagoa lortuko du irakurleak. Era berean, gozamenak gora egin ahala, ikasleek gehiago irakurriko dute, eta, ondorioz, trebetasun handiagoak eskuratuko dituzte. Aipatutako prozesua sorgin-gurpila da. Hurrengo atalean sakonduko dugun arren, arestian aipatutako ideia hori Deep Learning kontzeptuarekin lotuta dago, hau da, ikasle konpetenteagoak lortzearen ideiarekin. Azken finean, zenbat eta konpetentzia altuagoa lortu alor horretan, beste ikasgaietan izango duten eragina ere horren araberakoa izango da. Izan ere, ikasgai zehatz batean eskuratutako gaitasun eta trebeziak beste ikasgai batzuetara transferi daitezke. Cumminsek (1981) hizkuntzen arteko transferentziaren kontzeptua azaltzeko erabiltzen duen icebergak ideia hori azaltzeko balio digu. Literaturaren irakaskuntzaren kasuan, arlo horretan erdietsitako jakintza beste jakintza alor batzuetan aplika daiteke, beste testuinguru batzuetan, ez soilik literaturaren irakaskuntzan.

Hezkuntza literariora itzuliz, eta horrekin lotuta, ohiko eztabaida da ea obrak nork aukeratu behar dituen, edo irakasleek edo ikasleek. Alde batetik, egia da gazteei beren interes eta gustuekin bat datozen obrak aukeratzeko utzi behar zaiela, baina beste alde batetik, gauza jakina da halakoetan ikasleek beti liburu antzekoak hautatzen dituztela, ezagutzen dituztenak soilik. Alonsori (2008) jarraikiz egia da gazteei beren interes eta gustuekin bat datozen obrak aukeratzeko utziz gero, irakurtearen gozamina bermatuko litzatekeela; eta horri gaineratzen dio, obren aukeraketa irakurketaren helburuen araberakoa izan beharko litzatekeela. Aurreko ildoari helduz, Apalategik irakurketaren demokratizazioaz hitz egiten du (Matxain, 2015). Dioenez, ikasle bakoitzak etxean testuinguru bat edo beste dauka eta aukera literario batzuk edo beste. Horregatik, eskolak eskubide berdintasuna bermatzeko eta literatura demokratizatzeko balio behar du. Ikasleek haien testuinguruan ezagutuko ez lituzketen liburuak eskura jartzeko balio beharko luke eskolak. Hego Euskal Herrian egindako ikerketek diotenez (Alonso, 2008), Batxilergoko curriculumak ez du irakurzaieki buruzko xehetasunik aipatzen, eta, ondorioz, irakasleak eduki ohi du ikasleek Euskara eta Literatura arloan irakurri beharreko liburuen aukeraketaren ardura. Burututako ikerketen emaitzek diotenez, merkatuan zein lehiaketetan

izandako arrakasta eta argialetxeen proposamenak dira aukeraketaren oinarrian dauden irizpide nagusiak (2008). Bestalde, ikasle taldearen kultura eta ezagutzak ere aukeraketa horretan pisua dutela azpimarratzen du Alonsok, irakasleek ikasleen mailara egokituko diren liburuak aukeratzeko joera baitaukat. Horrenbestez, irakasleak laguntza handia eskain diezaiokie ikasleari, eta ez bakarrik liburuak ezagutzera ematerako orduan. Bidenabar, Epeldek (2019) sei irakurketa mota proposatzen ditu egoeraren arabera: irakurketa partekatua, dialogikoa, gidatua, boz gorako irakurketa, bakarkakoa eta bikoteka egitekoa. Aukeratzen diren obren zailtasun mailaren arabera, irakurketa mota ezberdinak egin daitezke. Konplexutasun handiko lan bat bakarka; etxean irakurtzean, ez da erakargarria izango, aldiz, irakurketa gidatua eginez gero, ikaslearen atentzioa bereganatu dezake (Alberdi, 2018). Beraz, Epeldek dioen moduan, “irakaslea hor baldin badago literatura ‘konplexuagoa’ edo aberatsagoa gozatzea errazago egingo zaie, baina giltzak eman behar zaizkie, eta aldamenean egon” (Alberdi, 2018). Aurreko lerroetan aipatutakoa ikusita, esan genezake irakasleengan erortzen dela irakurgaien aukeraketaren pisua. Liburuak ezagutzera emateko arduraz gain, horien irakurketa eta lanketa gidatu eta diseinatzeko ardurak daukate eta (Alonso, 2008).

Obra klasikoaren edo modernoaren arteko hautuak zalantzak sortu ohi dizkie irakasleei, baina ez dago bataren edo bestearen artean hautatu beharrik, aniztasuna baita klabea.² Hori horrela, eta arestian aipatutako ildoari jarraituz, ikasleen etxean ez bada klasikorik irakurtzen eta ez baldin badute inoiz ezagutuko, eskolak ezagutza bermatu beharko luke. Literatura ezin da testuinguru pribilegiatu batzuetan dauden haurrek ezagutzen dituzten obretara mugatu, denek eskura dagoen tresna izan behar da. Eta horretarako, irakasleek era guztietako lanak ezagutarazi (eta landu) behar dituzte. Ondoren, erakutsi eta landu ostean, haurrak ez badu eskainitako hori hautatu nahi (eskolatik kanpoko bere denbora librean), erabakia errespetatu beharko litzateke, baina behintzat abaniko zabala eskaini behar zaie ikasleei, gero, askatasunez aukera dezaten. Gaur egun ez dira asko betiko poesiatik eta narratibatik harago joaten saiatzen direnak, nahiz eta gero eta gehiago diren komikiak, mikroipuinak edo album ilustratuak haur eta gazteen eskura jartzen dituztenak.

Orain arte ezagutza izan dugu hizpide, baina literatur ezagutza izateaz gain, eta literatur testuak kontsumitzeaz gain, garrantzitsua da ikasleak sortzaile izatera bultzatzea. Literaturaren

² Aipatu nahiko genuke badaudela ikerketak klasikoek irakurle gazteari eskaintzen dizkieten onura psikologikoak aztertzen dutenak. Ipuin edo istorio klasikoek eguneroko konfliktu asko ekartzen zituzten erdigunera eta berdin berdin balio dute hala helduentzat nola gaztetxoentzat (azken hauen eskuetara iritsi baino lehenago, moldaketa batzuk egin behar diren arren).

historia hutsa ikastetik, sorkuntzara egin du salto literaturaren irakaskuntzak, baina Alonsok Argian egindako elkarrizketa batean azpimarratzen duen bezala, biak uztartuko dituen ikasleak jasoko du baliozko ezagutza (Matxain, 2015). Beraz, ezagutzaren eta sorkuntzaren arteko oreka bilatu behar da. Sarasuak (2013) defendatzen du ikasleak kultur-fluxuaren parte sentitzeko, sortzaile ere izan behar direla, eta literaturarekin ere gauza bertsua gertatzen dela uste dugu: literatur sortzaile eta literatur kontsumitzaile izateko aukera eskaini behar zaie. “Hizkuntzaren balio itsatsiak biziarazten digula mundu bat, irekia, eta aldi berean fluxu propioduna. Eta gure balio motibatzailearen gakoetako bat horixe datekeela: mundu horretan partaide eta sortzaile izatea” (Sarasua, 2013: 225).

3.3. DEEP LEARNING EDO IKASKUNTZA SAKONA

Hezkuntzaren berrikuntzan ari diren aditu askok baieztatzen dute gaur egungo hezkuntzaren xedeetako bat ikasleek XXI. menderako beharrezkoak diren ezagutza eta kompetentziak garatzea dela, hots, *deep learning* edo ikaskuntza sakona gauzatzea. Ikasleak ikasgai ezberdinei dagozkien kontzeptuak, prozedurak eta gaitasunak guztiz barneratu dituenean eta beste edozein testuinguru edo egoeratan erabiltzeko gai dela erakusten duenean ikasketa sakona izan dela baieztatu daiteke (CoE, 2019b; Coyle, 2015). Literaturaren irakaskuntza metodologia hauetan oinarritzea interesgarria izan daiteke, literaturaren gaineko ezagutzaren praktikotasuna azaleratzen lagundu baitezakete.

Ikasle kompetentea izaten lagunduko duten metodologiak garatzen ari dira gaur egun hainbat hezkuntza eragile. Horren adibide dugu *The Graz Groupek* aurkeztu berri duen *Pluriliteracies Teaching for Learning* (PTL) metodologia (Meyer & Coyle, 2017). Hizkuntza eta edukia uztartzeko helburuarekin sortutako CLIL edo *Content and Language Integrated Learning* metodologiaren bertsio eraberritua da *Pluriliteracies* deritzona (Coyle, 2015). CLIL metodoak hizkuntzaren ikasketa eta bestelako edukien barneraketa bateratzea du helburu, hizkuntzaren ikasketa testuinguruan jarritakoa izan dadin eta gainerako ikasgaietarako erabilgarri (Council of Europe [CoE], 2019a). Emaitzak aztertu ondoren, metodoak hainbat gabezia dituela azpimarratu dute Meyer eta Coyle bezalako hainbat adituk eta horri erantzuteko asmoarekin osatu dute metodologia berria (2017).


Irakasbide honek kontzeptuen eta prozeduren barneratzea eta ikasitako hori komunikatzeko gaitasunaren garapena bateratzea du xede (Coyle, 2015). Ikasleek ikusten dutena bere egin nahi badute, lehenengo eskuratu dituzten baliabide linguistikoen bidez beraien erara

adierazi beharko dute. Horrenbestez, ikasitakoa beraien hitzetan jartzeko beharra sortu behar da ikasgelan. Horrela, ikasgelan egindakoa ez da informazioaren transmisio soil bat izango, jakintzaren eraikuntza baizik. Irakaslearen lana eraikuntza hori gauzatzeko beharrezkoak diren testuinguru, tresna eta baliabideak eskaintzea izango da (Coyle, 2015). Behin jakintza bereganatu dutenean, ikasitakoa beste testuinguru batzuetan erabiltzeko gaitasuna izango dute eta orduan gauzatuko da ikasketa sakona (Meyer & Coyle, 2017). Horrenbestez, edozein ikasgaitan hizkuntzaren papera oso garrantzitsua dela azpimarratzen dute adituek, edukiak ulertzeko, barneratzeko eta komunikatzeko tresna hori baita (Coyle, 2015). Bestela esanda, hizkuntzaren gaineko jakintzak ahalbidetuko du bestelako ezagutza eta jakintzen eraikuntza. Ondorioz, hizkuntzaren erabilerak, funtzioak eta egiturak ezagutu beharko ditu ikasleak mundu akademikoan lantzen diren gaiak ulertzeko. Ikuspuntu honetatik, beraz, alfabetizazioa irakurtzen eta idazten ikastea baino gehiago da, alfabetizazioa (*literacy* hitzaren itzulpen bezala erabiliko dugu), jakintza-arloaren baitan, diskurtso mota ezberdinak ulertzeko, aztertze eta sortzeko gaitasuna garatzeko prozesua baita (Coyle, 2015).

Ikaslea, beraz, gai ezberdinetan alfabetatu (*subject literacy*) behar da, eta prozesu hori hainbat fasetan bereizten da. Meyer eta Coylek kontuan hartu beharreko dimentsioak jarraian aipatuko direnak direla baieztatzen dute (2017):

1. Ikasgaiari buruzko testuak irakurtzeko eta ulertzeko ahalmena garatzea.
2. Ezagutza berria ezagutza zaharrean txertatzeko gaitasunaren garapena.
3. Ikasitakoari buruzko gogoeta egiteko gaitasuna.
4. Barneratutakoa testuinguru berri edo beste ikasgai batean erabiltzeko gaitasuna garatzea.
5. Gaiari buruz eztabaidatzeko gai izatea.

Etapak hauek aurrera egiteko, funtzio kognitibo ugari (sailkatzea, definitzea, deskribatzea, ebaluatzea, azaltzea eta argudiatzea, besteak beste) erabiliko dituzte ikasleek eta praktikaren bidez, konplexutasun edo maila handiagoko ezagutza eta hura komunikatzeko gaitasuna izango dute.



4. Irudia. *Pluriliteracies* metodoaren garapena. Iturria. Meyer et al. (2015).

Azaldutakoa proposamen berria bada ere, biltzen dituen ideietako asko kontuan izan dituzte praktikara eraman diren hainbat hezkuntza eredu. Egoera ezberdinei aurre egingo dien ikasle konpetenteak lortzea izan da Ikastolen Elkarteak garatutako irakasbide eta material didaktikoen helburua (Ikaselkar, 2015). Ikasleak ezagutza akademikoez gain, bizitzako egoerei aurre egiteko beharrezko trebetasunak eskuratzea du xede metodologia honek. Ikasleei erantzun bat behar duten egoera errealak aurkezten zaizkie eta landu eta ikasiko dena erantzun hori diseinatzeko baliagarria izango da. Ondorioz, ezagutzak barneratu eta erabili egin behar dituzte.

Hezkuntza literario arrakastatsu baterako bidea izan liteke ikasketa sakona helburu duten metodologiek aurkezten dutena. Literaturan alfabetatua izango den ikaslea gai izango da literatura ulertu, aztertu, ebaluatu eta eztabaidatzeko. Are gehiago, literaturan ikusi eta ikasitakoaren praktikotasuna ezagutuko du eta beste arlo batzuetara eramateko gaitasuna izango du. Horretarako, baina, ezinbestekoa izango da funtzio kognitibo horien erabilera eskatuko duten testuinguruak sortzea ikasgelan.

3.4. HEZIBERRI 2020 ETA EUSKAL CURRICULUMA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak hainbat hezkuntza-eragilerekin batera argitaratutako Heziberri hezkuntza-ereduan ezaugarritzen dira oinarrizko hezkuntza jaso duen Euskal Autonomia Erkidegoko ikasle batek eduki beharreko kompetentziak eta ezagutzak (2014). Horrenbestez, ikastetxe edo irakasle-talde orok bertan jasotzen diren puntuetan oinarrituta definitu beharko luke ikasturterako plangintza.

Garatu beharreko kompetentziak aukeratzeko orduan, batetik, UNESCOk eta Europar Batzordeak onartutako hainbat proposamen; eta bestetik, LOMCE legeek araututakoak hartu dituzte kontuan. Oinarrizko kompetentzien artean, hots, ikasgai guztietan landu beharko liratekeen kompetentzien artean, aurkitzen da hizkuntza eta komunikaziorako kompetentzia (2014). Hizkuntza-komunikaziorako gaitasunari dagokionez, hauxe dio Heziberrik: “Egoera bakoitzak eskatzen duen ahozko eta idatzizko hizkuntza egoki eta ganoraz erabiltzea, euskaraz eta gaztelaniaz, bizitzaren eremu guztietan. Halaber, atzerriko lehen hizkuntza egoki erabiltzea egoera eta eremu sozial eta akademikoetan” (2014: 71). Bestalde, literaturari egiten dion aipamena ere azpimarragarria da, “ikasleak bere burua eta bere inguruko mundua hobeto ezagutzen lagunduko dion literatura heziketa” jaso behar duela baitio (2014: 31).

Begirada landu dugun etapara bideratuz, Hezkuntza Sailak argitaratutako eta Eusko Jaurlaritzak onartutako Batxilergoko curriculumak dioenez, ikasleek bi hizkuntza ofizialak “egoki, zuzen eta eraginkortasunez erabili behar dituzte”, hau da, “hizkuntzaren erabilera konplexua eta espezializatua egin behar dute, testuinguru formaletan gertatzen diren komunikazio-egoera askotarikoetan” (2016: 63). Atzerriko hizkuntzako ikasgaien berriz, “aurreko etapan eskuratu dituen hizkuntza-trebetasunak finkatu eta bere hizkuntza-errepertorioa aberastu behar du ikasleak; era berean, komunikazio-egoeren kopurua handitu behar du, bere interes akademiko eta profesionalei erreparatuta” (2016: 63). Hezkuntza literarioari dagokionez, jarraian azalduko dena eskatzen zaio ikasleari: “literatura-testuak interpretatzea eta balioestea, testuen esanahia modu partekatuan eraikita; eta, horren bidez, mundua ulertzea, literatura-ondarea banako eta taldeko esperientzia sinbolizatzeko modu gisa balioestea, norberaren kultura-nortasuna eraikitzea eta sentsibilitate estetikoa garatzea” (2016: 23). Euskara eta Literatura ikasgaiaren edukiak multzokatuta ageri dira dokumentuan eta “Literaturaren diskurtsoa” deritzon hurrengo puntuak aipatzen dira, besteak beste (2016: 122):

- “Hainbat genero eta arotako lan eta pasarte esanguratsuak irakurtzea eta entzutea, banaka nahiz taldean”.
- “Testu eta pasarte esanguratsuak irakurriz, entzunez eta ikusiz ezagutzea Literaturan errepikatzen diren gaiak, eta denboran zehar izan duten bilakaera”.
- “Literatura-testuak aztertzea, kontuan hartuz genero bakoitzaren egitura eta adierazkortasun-baliabideak”.
- “Literatura-testuen azterketa kritikoa egitea, hainbat ikuspuntutatik: testuingurua, mugimenduak, generoak, gaien trataera, genero ikuspegia, ...”
- “Literatura-testuen zentzuari buruzko eztabaidetan eta elkarrizketetan parte hartzea”.
- “Euskal Literaturaren hasieratik XX. mendera arteko lanik esanguratsuenak” ezagutu eta lantzea.
- “Literatura aberastasun pertsonal eta kulturaltzat hartzea, gozamen-iturritzat eta errealitatea ulertzeko modutzat”.

Atzerriko Lehen Hizkuntzan landu beharreko edukietan ere egiten zaio literaturari erreferentzia, eta beste batzuen artean jarraian aurkezten diren puntuak daude bertan (2016: 143-144):

- “Iruzkinak eginez eta modu adierazkorrean irakurtzea literatura-testu moldatuak, ikasleen adinera, zaletasunetara eta interesetara egokituak”.
- “Planifikatu ondoren, literatura asmoko testuak sortzea, sormena sustatzeko teknikak eta eraldatze-edo idazte-teknikak erabiliz erduen bidez: komikiak, poemak, dramatizazioak, gidoiak, kontakizun laburrak...”
- “Literatura-genero narratiboaren, lirikoaren eta dramatikoaren ezaugarriak” ezagutzea.
- “Literaturaren bestelako agerraldiak: musika, zinema, fanfiction, booktrailers, blognobelak...” ezagutu eta sortzea.
- “Atzerriko hizkuntzako Literaturarekiko jakin-mina eta interesa, eta irakurtzeko autonomia garatzea”.

Euskal Herrian bada Heziberri 2020 dokumentuaz gain, hezkuntza-sisteman eragina izan duen beste proposamen bat: Euskal Curriculumak. Legez onartuta ez dagoen arren, Heziberriren zein ikastetxeetako hezkuntza proiektu ugariaren erreferentziazko dokumentua izan da Hezkuntza Sailak, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak, EAEko Kristau Ikastetxeen Federazioak eta Euskal Eskola Publikoen Elkarteak elkarlanean bultzatutako eta idatzitako lana. Euskal jendartea eta kultura ditu ardatz curriculumak, eta horrenbestez, munduaren ikuspegi jakin batetik, euskaldunon ikuspegitik, aukeratutako eduki eta prozedura sorta dela esan daiteke (2006). Indarrean dagoen hezkuntza-proiektua hobetzeko jarraibide batzuk jasotzeko asmotan burutu zen lan hau. Derrigorrezko hezkuntzara zuzenduta dagoen arren (2016), bertan azaltzen diren hainbat gai Batxilergorako ere interesgarriak direla ezin uka dezakegu.

Hizkuntza eta Literaturaren irakaskuntzan modu osagarrian landuko diren bi helburu nabarmentzen ditu Euskal Curriculumak: komunikazio gaitasunaren garapena bata, eta literatur hezkuntzarena bestea (2006). Literatura lantzea beharrezkoa dela azpimarratzen du, hura landuz ikasleek “partaide garen giza komunitatearen kultur ondarearen zati handi bat” eskuratzen baitute era gozagarri batean (2006: 62). Ikasleek hurrengo ezagutza eta gaitasunak barneratu beharko lituzkete (2006: 104-105):

- Literatur lanak ulertzeko eta sortzeko behar diren “arauak eta baliabideak ezagutzea eta erabiltzea: literatur generoak eta horien ezaugarriak, baliabide estilistikoak eta erretorikoak barietatea, eta abar”.
- Euskal kulturaren, inguruko kulturen eta kultur unibertsalaren oinarritzko erreferenteak testuinguru historiko eta sozio-kultural baten ondorio direla ulertzea eta horietan oinarritutako azterketak burutzea.
- “Erreferentziazko testuak eta norberak aukeratutako testuak irakurriz” literaturaz gozatu eta ezagutzak eskuratzea.
- Literatura “giza egoera hobeto ulertzeko eta sentsibilitate ludiko-estetikoa garatzeko, norberaren nortasun pertsonala eta soziala eraikitzeko” baliagarria dela ikustea.

EAEko ikastetxeek eskura dituzten dokumentu horiek aurkezten dituzten helburuak erdietsiz gero, hezkuntza literario egoki eta osatua izango lukete ikasleek. Hala ere, ikusi dugunez, bertan aipatzen diren gai asko lantzetik urrun gelditzen dira ikastetxe asko; esan bezala, Hautaprobak ezagutza horiek baloratzen ez direlako, eta ondorioz, derrigortasunik ez dutelako.

Curriculumeko puntu horiek bete daitezen dekretuak mekanismo jakin batzuk jarri beharko lituzke martxan. Funtsean, Hautaprobak literatura sartzea. Horrek hizkuntzari eta literaturari prestigioa emateaz gain, beharrezkotasuna ere emango lioke.

4. MARKO METODOLOGIKOA

Atal honetan gure lana egiteko jarraitutako prozedura azalduko dugu, hala nola, zein izan den elkarrizketak egiteko metodologia edo zein irizpideren arabera erabaki dugun nork erantzungo duen gure galdeketa (laginaren hautaketa).

Elkarrizketari dagokionez, egia da Almen gunean Euskara eta Literaturako hainbat irakasle daudela, hala DBHn nola Batxilergoan, baina guk esperientzia handiena duen irakaslearengana jo dugu. Gainera, irakasle horrek berak gure azterketa egin dugun maila guztietan ematen ditu eskolak, eta beraz, ezin aproposagoa iruditu zaigu urtez urteko eta mailaz mailako bilakaerari buruz hitz egiteko. Lehenengo pausoa elkarrizketa-galderak³ prestatzea izan da. Hamaika **galdera** pentsatu genituen eta elkarrizketaren amaieran elkarrizketatzaileak nahi zuena gaineratzeko tartea utzi genuen. Egia esan, aurrez galderak prestatuta utzi arren, **elkarrizketa bideratua edo zuzendua** egin genuen eta jasotako erantzunaren arabera, unean uneko moldaketak egin genituen. Elkarrizketatuaren esanak jasotzeko grabagailua erabili dugu, bere baimenarekin betiere. Audioaren **transkripzioa** egin eta gero, ideia garrantzitsuenak atera ditugu.

Ikasleei pasatako galdetegi dagokienez, gure lehenengo kezka **laginaren hautaketa egokia** egitea izan da. Bi mailatan (DBHko 4. mailan eta Batxilergoko 2. mailan) pasa nahi genituen inkestak eta gela asko direla jakitun, **lagin adierazgarria** osatzea hobetsi genuen. **Probabilitatezko laginketa** egin dugu. Juaristiri jarraiki (2003), metodo hori erabiltzen da populazioa osatzen duten guztien zerrenda bat dugunean. Era horretako laginketetan, populazioaren elementu guztiek laginean aukeratuak izateko probabilitate bera dute. Bost eratako laginketa probabilitatekoak daude: zorizko laginketa sinplea, laginketa sistematikoa, laginketa estratifikatua, laginketa telefonikoa eta **konglomeratu bitartez egiten den laginketa**. Guk azken horren alde egin dugu. Juaristiri jarraikiz (2003), populazioa konglomeratu edo talde naturaletan banatua dagoenean (gure kasuan eskoletako klaseak), konglomeratu bitartez egindako laginketa egin genezake. Metodo horren bitartez, konglomeratu guztien zerrenda

³ Eranskinen atalean gehitu ditugu elkarrizketa-galderak.

prestatzen da, eta, ondoren, konglomeratu batzuk (gure kasuan ikasgela batzuk) aukeratzen dira zoriz. Ikerketa egiterakoan konglomeratua osatzen duten elementu guztiak har ditzakegu (guk egin duguna) edo konglomeratuaren barnean zorizko laginketa sinplea edo laginketa sistematikoa egin dezakegu. Behin lagina osatuta, galderak prestatu eta egindakoa irakaslearekin kontrastatu genuen. Hurrengo pausua prestatutako galdetegia ikasleekin partekatzea izan zen, haiek bete zezaten. Hasieran, inkesta Google formulario eran egitea pentsatu genuen, baina metodo hori baztertu genuen hainbat arrazoigatik. Juaristik (2003) dioen moduan, oso kontuan izan behar ditugu populazioaren berezitasunak. Ikergai den populazioaren berezitasunen arabera, teknika batzuk beste batzuk baino erabilgarriagoak izango dira. Gaineratzen duenez (2003), teknikak aukeratzekoan populazioaren berezitasunak kontuan hartzen ez baditugu, errore sistematikoak egin ditzakegu. Hori horrela, konturatu ginen galdetegia ordenagailuz egiten bazuten, informazioa sarean begira zezaketela eta azkarrago beteko zutela (erantzunak birritan pentsatu gabe). Hori horrela, gu aurrean geundela, eskuz egiteko eskatu genien (ordenagailuaren edo telefonoaren erabilerarik gabe). Lehenago esan ez badugu ere, eta Juaristiri jarraikiz (2003), **edukiari dagokionez, galdera zehatzak** egin ditugu eta **formari dagokionez berriz, galdera irekiak** (horietan ez zaio erantzun aukerarik ematen inkestatuari eta inkestatuak nahi duena erantzuten du).

Berriazko behaketa sistematikoa egin ez badugu ere (oharrak hartuz eta ebidentzia zehatzak jasoz), ezin aipatu gabe utzi MBL honen egileok urte osoa igaro dugula Almen gunean praktiketan eta ikasgelan gertatutakoari erreparatu diogula uneoro. Behaketa horrek ere, lan hau egiteko informazio esanguratsua eman digu.

5. CORPUSAREN AZTERKETA

Ondoren datozen ataletan, corpusaren azterketatik ateratako emaitza nagusienak argitaratuko ditugu. Lehenik eta behin, Euskara eta Literaturako irakaslearekin izandako elkarriketa izango dugu hizpide. Bigarrenik, Euskara eta Literaturako eskoletan ikasleek erabiltzen duten materialari buruz mintzatuko gara, bereziki, literaturari ematen zaion lanketan arreta jarritz. Aurrerago iruzkinduko dugun moduan, Ingelesean erabiltzen duten materiala aztertu dugu, baina ez dugu literaturarekin lotutako ezer aurkitu (ez derrigorrezko irakurketarik, ez eta literaturarekin harreman zuzena duen lanketarik). Hirugarrenik, Galtzagorri Elkarteak Almenen antolatutako Irakurzaletasuna Sustatzeko Lantegiari buruz jardungo gara labur-labur

eta laugarrenik, ikasleek betetako inkestak erkatu eta jasotako erantzun guztiak taula batean laburbildu ondoren, gure interpretazioa emango dugu.

5.1. IRAKASLEARI ELKARRIZKETA

Elkarrizketatuak, Jaione Agirrek, 32 urte daramatza Euskara eta Literatura ikasgaia ematen. Beti aritu da Almenen, nahiz eta bi urtez Gaztelupen ere eman zuen ikasgai hori. Ikastolan beti oso berritzaileak izan direla aipatzen du eta beti egon direla proiektu berrietan murgilduta; horrek, noski, lan karga handia dakarrela esan digu, baina satisfazio maila ere ikaragarria omen da. Hala ere, irakasleak duela urte batzuk baino lasaiago daudela dio; hastapenetan ordu asko eginak baitira ikastolan material berria sortzen, ekintzak prestatzen... Eta berriz errepikatu digu satisfazio maila egindako lanaren tamainakoa zela.

5.1.1. METODOLOGIA ETA MATERIALAREN GARAPENA

Literaturari dagokionez, eta Batxilergora mugatuta, aldaketarik izan al den galdetu diogu ondoren; materialari dagokionez, ikasleen literatur-ohiturei dagokienez, irakur-liburuen hautaketa, literatura irakasteko metodologia mota... Galdera horren aurrean, aldaketa handia egon dela esan digu. Hasieran, Euskara eta Literaturan Elkarrek sortutako liburukote batzuk omen zeuden. Ikastolan, Almenen (orduan oraindik ez zen Arizmendi), ez zuten liburu baten aldeko apustua egiten. Beti pentsatu izan dute norberak egin behar duela bere curriculum a edo bere ibilbidea. Eta orduan, liburu horiek hartzen zituzten eta alde batetik zati bat eta bestetik beste bat hartuz, osatzen zuten programa. Irakaslearen esanetan, ez omen zekiten asko, ez zuten talde kooperatiboen formazio handirik, ez metodologia ezberdinen berririk, baina ahal zutena egiten zutela esan zigun. Bestalde, materiala ere beraiek ateratzen zuten, beste liburu batzuetatik kopiatuta txostenak eginez: “ez genuen liburua erosten eta kito, liburu horietatik ikusten genuelako desaprobetxamendua (sic) ikaragarria zela”. Agirrek aipatu digu, gainera, beti egon dela kontzientzia gurasoen edo familiaren ekonomiarena, eta orduan, ezin ziren eskatu arlo bakoitzeko hainbat liburu. 1995ekoak izan omen ziren hori erabiltzen azkenetakoak. Ondoren, laguntza handia izan zuten Ikastolen Elkartetik eta proiektu bat ere izan zuten esku artean. Hala ere, DBHn, Ostadar proiektuarekin eduki ei zuten aldaketa handiena irakaslearen hitzetan. Ostadarren proiektuak planteatzen ziren jada, unitate bakoitzak bere proiektua baitzuen. Hala ere, egin edo ez, irakaslearen esku geratzen zen. Almeneko irakasleak material horrekin hasi zirenean, formaziorik gabe hasi ziren irakaslearen hitzetan. Liburua erosi eta ikaragarria iruditu arren ez bide zekiten oso ondo nola erabili. Ostean, orain dela 12 urte inguru, Ikastolaren Etxeak

irakasleak formatzeko apustua egin zuen, eta Almenetik, behintzat, Ostadarreko formazioetara joan ziren irakasleak; begiak ireki omen zituzten, beste apustu batzuk egin eta irakasteko modua aldatu. Gaztelanian, berriz, ez zuten horrelako aldaketa handirik ikusi; hala ere, hori ere poliki-poliki aldatzen doala azpimarratu digu. Gero, ordenagailuekin, egungo EKI sartu zen.

5.1.2. ANTOLAKETA

Elkarrizketaren bigarren atalean, ikasgaiaren ordu kopuruen inguruan jardun ginen. Agirre irakasle lanetan sartu zenean ikastolan euskararen irakaskuntzak 5 ordu zituen astean, bigarren hezkuntzako maila guztietan. Lanketa handia egiten zen eta denbora zuten gauzak sistematikoki lantzeko (gaur aditzak, bihar irakurgaiak...). Gero, 4 ordura jaitsi eta urte luzez horrela mantendu omen zen. Ostean, 3 ordura jaitsi zuten. Almenen, baina, horren aurrean lan autonomorako ordu bat jarri zuten eta bertan ikasleek nahi zutena lantzeko aukera zuten, fitxen bidez. Ondoren, Ikastolen Elkarteak Ikasys programa jarri zuen abian eta horrekin ordu bat gehiago zuten gramatika bakarrik lantzeko. Horiek oso garrantzitsuak izan omen ziren. Izan ere, horrela, 3 ordu zituzten literatura, proiektua edo idazlanak lantzeko. Ikasys ere kendu egin zuten eta Bizikidetzeta eta beste arlo batzuk lantzen dira horren ordean. Gaur egun, 3 ordurekin oso ezberdina dela dio irakasleak; nahiz eta DBHn, bi astetik behin, ordu bat gehiago izan.

5.1.3. LITERATURAREN IRAKASKUNTZAK DITUEN ERRONKAK

Horretaz gain, ikasleen interesek ere irakurzaletasunean eragina dute; nahiz eta gelan eskaintzen zaion denborarekin erkatu duen irakasleak irakurzaletasuna. Zenbat eta denbora gehiago eskaini, orduan eta irakurzaleagoak dira ikasleak. Lehen toki handiagoa zuen, egun ez du aukera handirik: “Ordutegiak asko baldintzatzen du”.

Euskara eta Literatura ikasgaiaren egungo adar nagusia zein den galdetu diogunean, Hautaproba ondo ateratzea dela esan digu. EGA ez dute helburutzat jarrita, programak ez duelako denborarik ematen hori prestatzeko. Beste ardatzetako bat literatura omen da, baina proiektuekin, azken bi urteetan, Batxilergoan ezin izan dute literatura landu. Hala ere, apustua bi mailatan literatura lantzea izan da. Liburua irakurri eta poesia proiektua egitea, adibidez. XX. mendeko autoreak eman eta gero haiek sortu, emanaldia bideoz grabatu, instrumentuekin... hori Batxilergoko 2. mailan, esaterako. Aurten soziolinguistika landu dutenez, ez dute literaturakoa egin, eta azken eskoletan gaur egungo erreferenteak landu dituzte apur bat. DBH 4. mailan ahozko euskal literatura lantzen dute (baladak...), Agirrerren hitzetan.

Lehen esan bezala, proiektuen trantsizio egoera honetan, baina, ez dira literatura lantzerantz helden. Euskal Idazleen Elkarteak idazle bat ikastolara etortzea eskaintzen du, baina aurrez ez zaienez idazlerik egokitu, ez dute lanketarik egin.

Beste hizkuntzekin lotura egiteko aukerarik dagoen galdetu diogunean Agirreri, bigarren Batxilergoan bukaerako proiektua Euskarari eta Ingelesean antzekoa denez, batera egitea pentsatzen ari direla datozen urteetan dio. Jakintza ikastolak pausoa eman duela aipatu digu Agirrek. Proiektu baten bidez, euskal literatura, ingeles literatura eta gaztelaniazko literatura DBH 4. mailan lotzea lortu dutela esanez.

Hala ere, berriz azpimarratu digu egun lehenago ez zituzten hainbat arazo dituztela; horien artean euskara mintzatu eta idatziaren arazoa. Horrek, eragina du beste arloak lantzerako orduan. Hutsune horiek betetze aldera, beste irakasle batzuekin elkarlanean, ikasleei laguntzen saiatzen dira. Filosofiako azterketan adibidez, nola idazten den ere kontuan hartzen du euskarako irakasleak ebaluatzerako orduan.

Hizkuntza guztietan (Euskarari, Gaztelanian eta Ingelesean), literatura modu bertsuan lantzen den galdetutakoan, ezezkoa eman digu; Hautaprobak baldintzatzen badu arloa, lanketa ere horren araberakoa delako. Ez da berdina Gaztelanian edo Euskarari esaterako; Gaztelanian askoz gehiago lantzen da Hautaprobaren ere hori eskatzen delako.

Horren ostean, literatura nahikoa lantzen den eta zein hutsune ikusten dituen galdetu diogu. Oraingo honetan ere, problema denbora dela aipatu digu. DBHn, adibidez, unitate batzuk oso mardulak direnez gero, ez omen du guztia lantzeko denborarik ematen.

Irakurzaletasuna bultzatzeko programen inguruan galdetutakoan, literatur tertuliak gelan probatu dituztela aipatu zigun. DBHko lehen mailatan funtzionatu arren, DBHko 3 eta 4. mailatan ez du arrakastarik izaten: “Oso umeak dira eta irakasleak guztia kontrolatuko duela pentsatzen dute. Egiten duzun hirugarren aldian, hau da, zer den ikusi dutenean, ez du arrakastarik izaten. Batzuek ez dute liburua irakurriko, ikaskideek esandakoak errepikatuko dituzte, eta irakasleak ezingo du jakin nork irakurri duen eta nork ez”. Horretaz aparte, idazlea ikastetxera joateko programetan ere urtero parte hartu dute; nahiz eta lehen aipatu bezala, aurrez ez duten aukerarik izan.

Literatur proposamenak zein helbururekin egiten dituzten galdetuta, egun, irakasleek ere ez omen dute denborarik liburu guztiak irakurtzeko. Beraz, literatur aukeraketa guztien artean egiten dute. “Gaur egungo eskaintza begiratzen dugu; hala ere, denbora falta da gure arazo nagusienetarikoa”. Aukeraketa azkar eta presaka egin ohi dutela ere aitortu digu. “Ondorioz, batzuetan aukeraketa ona izaten da eta beste batzuetan ez. Modu askotan eta liburu askorekin saiatu gara, baina ez da beti asmatzen. Gustuak, ohiturak... ezberdinak dira, oso”. Bidenabar, liburu batzuk ulertzeko ulermen maila altua behar dela aipatu digu, eta azken urteetan irakurleen mailara egokitzen joan direla: “Orain ez dugu Bernardo Atxagaren libururik irakurtzen”.

Agirrerri egungo liburuen lanketa zergatik hobesten duten galdetuta, erantzuna nahiko argia izan da: metodo bakarra delako (orain arte probatu dituenen artean) ikasleek irakurri dutela bermatzeko. “Batxilergoko 2. mailan egin nuen azterketa eta bi ikaslek irakurri ez zutela jakin nuen”. Hala ere, gaineratu du irakurri ez duten guztiak harrapatzea ezinezkoa dela. Azterketa gainditzeko %50a eskatuz gero, ez omen da inor harrapatzen. %60-70era igoz gero, asko harrapatzen dira. Galdera zehatz batzuk ondo egitea beharrezkotzat jo daiteke, baina kasu horretan, irakaslearentzako lan handiagoa litzateke, azterketa hiru aldiz begiratu behar baitu.

DBH 2. mailan EKIk liburu baten kritika lantzeko unitate bat proposatzen du. *Ezekiel* liburua erabiltzen dute horretarako; liburu bakarra irakurtzen da unitate horretan eta kapituluz kapitulu irakurtzen da gertatuko denari buruzko hipotesiak eginez, eta ondoren, ohar kritikoa egiten dute. Hala ere, berriz aipatzen du Agirrek horrek ere ez zuela oso ondo funtzionatu: “4. kapitulura iritsi ginean, konturatu nintzen hainbat ikasle ez zirela bertara iritsi. Hurrengo egunean proba egitea erabaki nuen. Proba txiki bat eraman nuen, eta irakurri ez zuten ikasle asko harrapatu nituen. Ohar kritikoa nork irakurri ez duen jakitea ez da erraza. Pertsonaiak, narratzailea... aztertu behar dituzte, eta Internetetik edo pasa den urteko lanetatik kopiatzea ez da zaila. Lan horretan, beraz, adierazmena baloratu daiteke, ulermena, berriz, ez”. 6 urtetan irakurri dute liburu hori eta liburua aldatu daitekeela onartzen duen arren, irakaslearen esku geratzen dela dio Agirrek; horrek dakarren aukeraketa, lanketa eta lan karga handiarekin.

5.1.4. SORMENAK GELAN DUEN TOKIA

Lehenago aipatu dugun bezala, garrantzitsua da ikasleak literatur ezagutza izateaz gain, eta literatur testuak kontsumitzeaz gain, sortzaile izatera ere bultzatzea. Horretarako, ezinbestekoa da gelan ere sormenari lekua uztea. Horrek gelako programazioan zein leku duen galdetuta, AEDko lehiaketari beti eman zaiola garrantzia aipatu digu, eta Loramendiko sariketan

ere parte hartu izan dutela sarri. Horretaz gain, ikasle batzuen lanak Urruzuno lehiaketara ere bidali dituzte. Garai batean, arloko burua egonda, horrelakoak gehiago lantzen omen ziren; antolakuntza aldetik asko laguntzen baitzuen horrek. Adibidez, lehiaketetarako jasotako lanen artean, tutoreak lehen galbahea pasatzen zuen. Bestela, guztia euskarako irakaslearen esku gelditzen da eta horrek lan karga handia dakar.

Amaitzeko, literaturarekin beste hainbat kompetentzia landu daitezkeela gaineratu digu: ulermena, irakurmena, ortografia... “beste arlo batzuetan erakusten duzun ahalmena ere horren esku dago. Literaturarekin gozatzeko literatura irakurri egin behar da, bestela inoiz ez duzu gozatuko”.

5.2. ERABILITAKO MATERIALA

Batxilergoko 2. Mailan, ikasleek Euskara eta Literatura ikasgaian, urte osoan erabilitako materiala aztertzeke aukera izan dugu. Gaur egun, ordenagailuak ordezkatu ditu garai bateko liburu eta txostenak, eta online partekatzen ditu irakasleak azalpenak zein ariketak. Xtend izeneko ikaskuntza plataforma daukate ikasleek eta bertatik bideratzen ditu irakasleak lan gehientsuenak. Aipatutako plataforma hori irakasleek hornitu eta egokitzen dute, momentuko behar eta eskakizunen arabera. Horrez gain, ikasleek koaderno digitalean gordetzen dituzte egindako lanak eta esteka garrantzitsuenak. Noiz edo noiz, irakasleak paperean ematen dizkie ariketak, batez ere, Hautaprobako azterketen ereduak edo berridazketekin lotutako ariketak.

Horiek guztiak aztertu ditugun arren, tamalez, ez dugu literaturarekin lotutako gauza handirik aurkitu. Agirrek elkarrizketan esandakoari jarraiki, Euskara eta Literaturako ardatzetako bat literatura da, baina proiektuak direla eta, azken bi urteetan, Batxilergoan ezin izan du literatura landu. Hala ere, azken eskoletan gaur egungo erreferente (literario)ak landu zituzten. Ikasleek biko taldetan egin zuten lanketa hori. Irakasleak euskararekin lotutako erreferente gazteen zerrenda bat osatu zuen arbelean, eta ikasleek bertatik aukera zezaketen pertsona bat, edo haiei bururatzen zitzairen bat hauta zezaketen. Egindako hautaketarekin, aurkezpen bat egin zuten, aukeraketa justifikatuz, eta horrez gain, pertsona horren esaldi bat aurkitu (euskararekin lotutakoa) eta kartel bat osatu behar zuten. Ikusi genuenez, ikasle guztiak ez zuten ondo ulertu egin beharreko lana; izan ere, zenbait ikasle erreferente gazteak hautatu zituzten, baina ez *euskararen* erreferente. Esan gabe doa ikasle askok euskararen erreferente diren gazteak aipatu zituztela, baina guztiak ez ziren literaturarekin lotutakoak. Bestalde, Euskara eta Literaturako Batxilergoko bi irakasleek ez zuten kontsigna bera eman. Batek argi

azaldu zuen aukeratutako esaldia euskararekin lotuta egon behar zela, eta beste irakasleak, ordea, ez zuen zehaztaperen hori eman.

Hautaprobako azterketei dagokienez⁴, Euskara eta Literatura ikasgaietan, literatura, agertzekotan, idatzizko ulermena lantzeko ariketan agertzen da, galderak erantzuteko testuan. Hala ere, testu hori ez da literarioa izaten beti. Bitxia eta apur bat kontraesankorra dirudien arren, atal baten izenburua “Hizkuntzaren eta Literaturaren inguruan” da eta puntu bateko balioa du. Ariketa horretan, hainbat aukera egon daitezke eta deialdiz deialdi edo eredu eredu aldatu egiten da. Batzuetan, lau definizio ematen zaizkie ikasleei eta ordaina aurkitu behar dute testuan. Beste batzuetan, hitz-kate batzuk edo esaldi batzuk ematen zaizkie eta esanahia azaldu behar dute ikasleek.

Liburuen irakurketak eta horien azterketak dira zuzenean literaturarekin lotuta dauden eta urtero sistematikoki errepikatzen diren ariketa bakarrak. Urtean, hiru liburu irakurtzera derrigortzen dituzte ikasleak, eta gero, liburu-froga egiten dute. Aurten irakurritako liburuak Uxue Alberdiren *Jenisjoplin* (Susa, 2017), Miren Gorrotxategiren *33 ezkil* (Elkar, 2016), eta Iñaki Frieraren *Zureak egin du* (Susa, 2009) izan dira. Liburu-probei dagokienez, irakasleek eurek aitortu digute helburu nagusia ikasleek liburua irakurri duten edo ez ikustea dela. Azpimarratzekoa da ikasleei “apur bat alferrikakoak” iruditzen zaizkiela Euskaran egiten dituzten azterketa horiek. Baina Gaztelaniako ikasgaietan, adibidez, lanketa askoz egokiagoa izan dela aipatu digute. Ikusi dugunez, Isabel Allenderen *La Casa de los Espiritus* (Sudamericana, 1982) liburua irakurri dute, eta azterketa egin beharrean, 14 orrialdeko dokumentu bat sortu du irakasleak, ikasleek liburuari barrena atera diezazkioten.

Ingeleseko materialari dagokionez, gorago esan bezala, ez dugu literaturarekin lotutako ezer aurkitu. Irakasleak ez dizkie derrigorrezko irakurketarik bidaltzen ikasleei, eta eskolan ez dute testu literarioak lantzen. Arlo horretan, hortaz, ez da literaturarekin harreman zuzena duen lanketarik egiten.

Laburbilduz, materialaren azterketatik ondoriozta dezakegu: Euskara eta Literaturako irakaslearen ardatzetako bat literatura den arren, proiektuek tokia kendu diotela horren lanketari. Proiektuez gain, Hautapropa prestatzeari edo lantzeari garrantzi handia ematen zaio eta azterketa

⁴ Lotura honetan kontsulta daitezke azken urteetako bi deialdietako Hautaprobako azterketa guztiak: <https://www.ehu.eus/eu/web/sarrera-acceso/batxilergotik-unibertsitatara-sartzeko-probaren-ariketak>. Liburu-frogak ordea eranskinen atalean gehitu ditugu.

horretan literaturak ez du tokirik. Literaturarekin lotuta dauden eta urtero sistematikoki errepikatzen diren ariketa bakarrak liburu-irakurketak eta horien frogak dira, baina, helburu nagusia ikasleek liburua irakurri duten edo ez ikustea da eta ez obraren lanketa sakona egitea. Bestalde, Agirrek aipatu zigun ikasturtean zehar literaturaren lanketarik egin ez zutenez, azken asteetako denbora apurra horretara bideratu zutela. Horren harira sortu zen lehenago aipatu dugun euskal erreferenteen ariketa.

5.3 IRAKURZALETASUNA SUSTATZEKO TAILERRA GALTZAGORRIREKIN

Ekainaren 17an Irakurzaletasuna Sustatzeko Lantegia antolatu zuen Galtzagorri elkarteak, Almenen, eta bertara joateko aukera izan genuen. DBHko eta Batxilergoko Euskara, Gaztelania, Ingeleseko eta Frantseseko irakasleak bildu ziren eta saioak bi atal nagusi izan zituen. Lehenengoan, irakurzaletasunaren inguruan aritu ginen: zer den irakurzaletasuna, zergatik irakurzaletu behar ditugun ikasleak eta nola egin lan hori besteak beste. Bigarreanean, berriz, DBHko ikasleentzat baliagarri izan daitezkeen zenbait liburu aurkeztu zizkiguten. Irakasleek hainbat konpromiso hartu zituzten, adibidez, irakurketari denbora eskaintzea gelan, klasera liburuak eramatea eta ikasleei aurkeztea edo genero aniztasuna ikusgarri egitea.

5.4. INKESTAK

Jarraian datozen bi taulek DBHko 4. mailako eta Batxilergoko 2. mailako inkestetako emaitzak biltzen dituzte hurrenez hurren.

Galderak	Emakumeak		
	Lerro zientifikoa: 2 ikasle	Lerro teknologikoa: 2 ikasle	Lerro humanistikoa: 5 ikasle
Literatura: zer da eta zein funtzio ditu?	<p>(1) “Nire ustetan literatura hitz multzo bat da. Txikitatik erlazionatu dut literatura liburuekin. Hainbat gauza transmititu ahal dira modu entretenigarrian, abesti, balada, ipuin... bidez gertaerak kontatu.”</p> <p>(2) “Literatura gure artean komunikatzeko modu bat da: idatziz, ahoz... izan daiteke. Liburuak esaterako, literaturaren parte dira, baita hitz egiteko erabiltzen ditugun esaldiak ere. Bere funtzio komunikazioa izango litzateke: idatzien bitartez komunikatu, hitz eginez komunikatu...”</p>	<p>(1) Hitz multzo bat da. Komunikatzeko dela uste dut.</p> <p>(2) Literatura entzutean burura etortzen zaidan lehenengo gauza liburuak dira, txikitatik erlazio hori egiten erakutsi digute. Baina nire ustez hori baino gehiago da, hainbat gauza transmititzeko modua adibidez. Benetako gertaerak transmititu daitezke literaturaren bidez, ipuin, poema eta edozein motatako testuen bidez.</p>	<p>(1) Nire iritziz literaturak liburuekin du zerikusia. Jendea aspertzea da bere funtzioa.</p> <p>(2) Hitz multzo bat da. Jendea entretenitzea eta informatzea da literaturaren funtzioa.</p> <p>(3) Hitz multzo bat da, bere funtzioa jendea entretenitzea, zein aspertzea izan daiteke.</p> <p>(4) Literatura artea transmititzeko modu bat da, bere funtzioa hizkuntza baten historia eta eginkizuna adieraztea da.</p> <p>(5) Nire ustetan, literatura hitz-multzo bat da. Txikitatik erlazionatu dut abesti edo liburuekin. Funtzioa komunikatzea dela uste dut.</p>

<p>Zein genero ezagutzen dituzu?</p>	<p>(1) Bertsoak, koplak, baladak, maite kantuak, eresiak, liburuak</p> <p>(2) Hainbat genero daude. Idatzizko literaturari dagokionez komikiak, album ilustratuak, ipuinak, nobelak ... ikusi izan ditugu. Ahozko literaturari erreparatuz maskaradak, pastoralak, eresiak, maite kantuak, koplak zaharrak... aztertu ditugu.</p>	<p>(1) Liburuak, bertsoak, koplak, baladak, poemak, maite kantuak, eresiak, musika</p> <p>(2) Ez ditut genero asko ezagutzen, izan ere, nik irakurri eta ikusi ditudan gehienak nobelak dira. Baina horiek ere hainbat motatakoak izan daitezke, amodiozkoak, abenturazkoak, historikoak, fantasiakoak.</p>	<p>(1) Maitasunezko liburuak</p> <p>(2) Narratiba, genero gramatikoa, lirika eta dramatika. Genero horien barruan poesia, baladak, koplak zaharrak topatu ditzakegu.</p> <p>(3) Hiru genero: narratiba, lirika eta dramatika. Genero horien barruan poesia, baladak, koplak zaharrak topatu ditzakegu.</p> <p>(4) Komikia, album ilustratuak, abestiak, filmak, literatura idatzia</p> <p>(5) Komikia, liburuak, eresiak, poemak, baladak, bertsoak, koplak</p>
<p>Literaturaren lanketa: gustuko? Nahikoa landu?</p>	<p>(1) Bai, literatura lantzea entretenigarria iruditzen zait. Gauza berriak ikasteko modu polita da, adibidez, abestien bitartez.</p> <p>(2) Ez, nire egunerokotasunetik at geratzen den gauza bat delako. Hala ere, nobelak irakurtzea atsegin dut eta denbora dudan guztietan irakurtzen dut. Ez dut uste nahikoa lantzen denik, izan</p>	<p>(1) Ez, aspergarria iruditzen zait. Bai, txikitatik lantzen dugulako.</p> <p>(2) Egia esan ez dut oso gustuko, klasean modu aspergarri eta astunean ikusten baitugu. Nire ustez literatura beste modu batean eman beharko zen, dituen alde positiboak erakutsiz.</p>	<p>(1) Ez, aspergarri iruditzen zait. Larregi lantzen dugu.</p> <p>(2) Ez, literatura lantzea aspergarria delako. Bai nahikoa lantzen dela uste dut. Ez da interesgarria eta baliagarria ere ez.</p> <p>(3) Ez, aspergarria iruditzen zaidalako. Ez da interesgarria eta baliagarria ere ez.</p> <p>(4) Ez, teoria galanta delako eta oso aspergarria. Nik esango nuke nahikoa lantzen dela,</p>

	ere, jende askok ez du atsegin literatura.		izan ere, klase gehienetan ematen dugula. Teoria baino praktika nahiago dugu. (5) Ez du atsegin, izan ere, literatura aspergarria iruditzen zait. Nahikoa lantzen dela uste dut.
Literaturaren lanketa: ikasgelako metodologia egokia?	<p>(1) Literaturari garrantzia ematen zaiola uste dut, baina metodologia aldatuko nuke, nahiko astuna egiten baitzait.</p> <p>(2) Bai, batez ere hizkuntzetan. Hizkuntzetan ez ezik, beste arloetan ere literaturari dagokionez oinarrizko maila bat eskatu ohi da. Metodologia ez zait oso egokia iruditzen nahiko aspergarria delako.</p>	<p>(1) Garrantzia ematen zaio, baina ez zait gustatzen</p> <p>(2) Iruditzen zait garrantzia ematen zaiola baina ez modu egokian. Ikasleok frogarako ikasi behar dugun beste gauza bat bezala ikusten dugu. Beraz erabiltzen den metodologia ez zait egokiena iruditzen, nire ustez ez baitu funtzionatzen.</p>	<p>(1) Metodologia egokia iruditzen zait.</p> <p>(2) Gaztelania arloan literaturari garrantzia handiagoa ematen zaio.</p> <p>(3) Gaztelania arloan garrantzia handiagoa ematen zaio. Metodologia nahiko egokia da.</p> <p>(4) Metodologia egokia da baina ez zait asko gustatzen.</p> <p>(5) Literatura ikasteko erabilitako metodologia, materiala eta jarduera motak desegokiak iruditzen zaizkit. Ez zaizkit gustatzen.</p>
Zer landuko zenuke?	<p>(1) Bertsolaritza lantzea gustatuko litzaidake, izan ere, 6.mailatik ez baitugu berriro arlo hau landu.</p> <p>(2) Musikaren alderdia lantzea gustatuko litzaidake arlo</p>	<p>(1) Bertsolaritza, aspaldi ez dugulako eman</p> <p>(2) Literatura moderno gehiago ikustea gustatuko litzaidake. Iruditzen zait literatura</p>	<p>(1) Landu dugun ezer ez zait gustatu.</p> <p>(2) Gaur egungo amodiozko istorioak</p> <p>(3) Gaur egungo amodiozko istorioak</p>

	<p>interesgarria iruditzen baitzait eta musika gehienok entzuten baitugu.</p>	<p>zaharrak ez duela klasea erakargarri egiten.</p>	<p>(4) Literatura ez zait asko gustatzen baina aukeratu behar badut garai honetako zerbait ikastea gustatuko litzaidake.</p> <p>(5) Literatura ez zait asko gustatzen baina lantzekotan abestiak landuko nituzke.</p>
<p>Zenbat liburu irakurtzen dituzu?</p>	<p>(1) Gelan ematen digutenak irakurtzen ditut, aurren 3 euskaraz eta nire kabuz irakurtzekotan gaztelaniaz irakurtzen ditut.</p> <p>(2) Euskaraz bost bat liburu. Gazteleraz hilabetero lau bat eta ingelesez noizean behin, gaia ikaragarri gustuko badut soilik. Euskarazkoak gehienetan irakasleak emandakoak dira, gainerakoak nik aukeratutakoak.</p>	<p>(1) 3 euskaraz eta bat gazteleraz, hau da, irakasleak bidalitakoak</p> <p>(2) Euskaraz ez ditut asko irakurtzen, irakasleak bidalitakoak bakarrik. Gustuko dut irakurtzea baina guztiak gaztelaniaz irakurtzen ditut.</p>	<p>(1) Irakasleak emandakoak</p> <p>(2) Euskaraz bat ere ez, gaztelaniaz bai</p> <p>(3) Euskaraz 3 liburu, gaztelaniaz 1</p> <p>(4) Euskaraz irakasleak aukeratutako 3 eta gaztelaniaz 2 nik aukeratuta</p> <p>(5) Euskaraz 2 irakasleak aukeratutako. Beste hizkuntzetan berriz 4 edo, nik aukeratutakoak.</p>
<p>Zein hizkuntzatan irakurtzen duzu?</p>	<p>(1) Gaztelaniaz</p> <p>(2) Gaztelaniaz</p>	<p>(1) Ez dut irakurtzen</p> <p>(2) %90a gaztelaniaz</p>	<p>(1) Ez dut irakurtzen</p> <p>(2) Gaztelaniaz</p> <p>(3) Gaztelaniaz</p> <p>(4) Gaztelaniaz</p> <p>(5) Gehienetan gaztelaniaz</p>

Zein <u>euskal</u> idazle ezagutzen dituzu?	(1) Toti Martinez de Lezea eta Mikel Hernandez (2) Unai Elorriaga, Jasone Osoro, Toti Martinez de Lezea, Txilardegi, Txomin Agirre, Bernart Etxepare, Bernardo Atxaga, Mikel Hernandez	(1) Toti Martinez de Lezea (2) Toti Martinez de Lezea eta Mikel Hernandez	(1) Toti Martinez de Lezea eta Mikel Hernandez (2) Toti Martinez eta Jasone Osoro (3) Toti Martinez (4) Toti Martinez (5) Tote Martinez
---	---	--	---

Galderak	Gizonak		
	Lerro zientifikoa: -	Lerro teknologikoa: 7 ikasle	Lerro humanistikoa: 4 ikasle
Literatura: zer da eta zein funtzio ditu?		(1) Erantzunik gabe (2) Ideiak espresatzeko modu bat, idatzi eta irakurtzea da bere funtzioa. (3) Ideiak espresatzeko modu egokia eta zintzo bat (4) Euskal Herriko ohiturak ikasteko eta entretenitzeko balio du. Ez dauka funtzio espezifikoa bat. (5) Literatura nire ustez liburuak, musika, historia ezagutzeko modu bat... da (6) Ikasketak dira, kultura aberasteko funtzioa du	(1) Literatura hizkuntza batek duen informazioa da, irakurketa, kultura irakurtzea... kultura aurkeztea eta aberastea (2) Ahoz eta begiradaz ezik erabili daitekeen transmisioa da. (3) Literaturak entretenitzeko funtzioa duela uste dut, niretzat ez dauka garrantzia handirik. (4) Denbora pasatzeko modu bat

		(7) Literatura ikasi egin behar dudan gauza bat da, adibidez, euskara eta literatura ikasi egin behar dut kurtsoa aprobatzeko. Niretzat ez du funtzio inportanterik.	
Zein genero ezagutzen dituzu?		<ul style="list-style-type: none"> (1) Abestiak, baladak, atsotitzak... (2) Liburuak, komikiak, album ilustratuak, nobelak (3) Liburuak, komikiak, album ilustratuak, nobelak... (4) Koplak zaharrak, maite kantuak, liburuak, bertsoak, historikoak (5) Ez dut ezagutzen (6) Gehienak (7) Komikiak, liburuak, bertsoak, poemak, baladak, koplak, maite kantuak, eresiak 	<ul style="list-style-type: none"> (1) Komikia, liburua, nobela, eta askoz gehiago (2) Album ilustratuak, komikiak (3) Liburuak, bertsoak, antzerkiak, poesia (4) Akziozkoa, amodiozkoa, drama
Literaturaren lanketa: gustuko? Nahikoa landu?		<ul style="list-style-type: none"> (1) Bai, idaztea gustatzen zaidalako. Nire ustez nahikoa lantzen dugu. (2) Ez, aspergarria eta nekagarria iruditzen zait. Nahikoa baino gehiago lantzen dugula uste 	<ul style="list-style-type: none"> (1) Ez, oso aspergarria dela uste dut eta asko lantzen dugula (2) Bai, askea nagoenaren inpresioa ematen baitit. Ez da nahikoa lantzen jendeak ez duelako ulertzen

		<p>dut, ikastolan beti irakurtzen eta idazten gabiltzalako.</p> <p>(3) Ez dut atsegin literatura lantzea, izan ere, oso nekagarria eta aspergarria iruditzen zait. Bai, asko lantzen dugu, klasean 3.hiruhilabetean landu dugu.</p> <p>(4) Ez, aspergarria delako eta uste dut nahikoa lantzen dugula.</p> <p>(5) Ez da nire gustuko gauza, ez zait interesatzen. Ez dakit nahikoa lantzen den, norberak esango du.</p> <p>(6) Ez, aspergarria iruditzen zait. Gehiegi lantzen dugu</p> <p>(7) Ez dut gustuko, aspergarria iruditzen zait eta gainera hiruhilabete guztiak suspenditu ditut. Gehiegi lantzen dela uste dut. Euskara eta gazteleran lantzen dugu eta desesperatu egiten naiz.</p>	<p>(3) Ez dut gustuko, ez nau entretenitzen. Nahikoa lantzen dela uste dut, gaztelanian batez ere.</p> <p>(4) Ez, aspergarria iruditzen zait. Nahikoa lantzen dugu, ez da bizitzarako beharrezkoa.</p>
Literaturaren lanketa: ikasgelako metodologia egokia?		<p>(1) Bai, astean 4 orduan lantzen dugu. Beste ikasgaiak baino gehiago.</p> <p>(2) Metodologia egokia iruditzen zait</p> <p>(3) Materialak eta jarduera motak egokiak iruditzen zaizkit.</p>	<p>(1) Egokia da, euskarazko klaseetan beste hizkuntzetan baino gehiago idazten dugu literaturari buruz</p> <p>(2) Metodologia egokia iruditzen zait oro har</p> <p>(3) Metodologia ez da egokia</p>

		<p>(4) Bai, egokia da.</p> <p>(5) Ez da egokia, nire ustez literatura bakoitzak nahi duena ikasi beharko luke</p> <p>(6) Ez, aspergarria iruditzen zait eta ez zait idaztea gustatzen</p> <p>(7) Ez da nire gustukoa, horregatik materiala eta jarduerak ez zaizki gustatzen.</p>	(4) Bai, egokiak dira
Zer landuko zenuke?		<p>(1) Literatura zaharra, Bernart Etxepare</p> <p>(2) Ez nuke ezer landuko</p> <p>(3) Ez nuke ezer landuko</p> <p>(4) Ezer</p> <p>(5) Ezer</p> <p>(6) Katak, jokoak</p> <p>(7) Literaturan ez nuke ezer landuko, hala ere musikarekin ikastea ez zait ideia txarra iruditzen</p>	<p>(1) Ezer ez</p> <p>(2) Jokoak</p> <p>(3) Bernart Etxepare</p> <p>(4) Pelikulak</p>
Zenbat liburu irakurtzen dituzu?		<p>(1) Irakasleak bidalitakoak, 3 euskaraz eta 2 gaztelaniaz</p> <p>(2) Bat edo bat ere ez, behartuta irakurtzen ditut</p> <p>(3) 1-2 liburu urtero, beste hizkuntza batean 1 gehienez. Nik aukeratzen ditut.</p>	<p>(1) Bat ere ez</p> <p>(2) 1-2, irakasleak zein nik aukeratutakoak</p> <p>(3) Erantzunik gabe</p> <p>(4) Irakasleak agindutakoak, 3</p>

		<ul style="list-style-type: none"> (4) Bat ere ez (5) Liburuak gutxi, baina beste gauza batzuk bai (6) Irakasleak bidalitakoak (7) Euskaraz irakasleak bidalitakoak eta beste hizkuntzetan 2-3 nik aukeratuta 	
Zein hizkuntzatan irakurtzen duzu?		<ul style="list-style-type: none"> (1) Euskaraz (2) Euskaraz eta gaztelaniaz (3) Euskaraz eta gaztelaniaz (4) Ez dut irakurtzen (5) Portugesez, gaztelaniaz (6) Euskaraz eta gaztelaniaz (7) Gaztelaniaz 	<ul style="list-style-type: none"> (1) Ez dut irakurtzen (2) Euskaraz eta gazteleraz (3) Erantzunik gabe (4) Gaztelaniaz
Zein <u>euskal</u> idazle ezagutzen dituzu?		<ul style="list-style-type: none"> (1) Bernardo Atxaga, Bernart Etxepare, Toti Martinez de Lezea, Pello Berrizbeitia (2) Etxepare (3) Jaione Agirre, Bernardo Atxaga, Bernat Etxepare, Txomin Agirre (4) Inor (5) Bat ere ez (6) Toti Martinez de Lezea (7) Mikel Hernandez 	<ul style="list-style-type: none"> (1) Kass Morgan (2) Toti Martinez (3) Bernat Etxepare (4) Inor ez

Galderak	Emakumeak		
	Lerro zientifikoa: 9 ikasle	Lerro teknologikoa: 2 ikasle	Lerro humanistikoa: 3 ikasle
Literatura: zer da eta zein funtzio ditu?	<p>(1) Gauzak ulertzeko era bat; arte arloan sar daiteke; liburuak</p> <p>(2) Ezinbestekoa da eta funtzio asko ditu: emozioak askatu, entretenitu, garai historikoak ezagutu...</p> <p>(3) Hitz zabala da; kultura, historia... niretzako baina, ez da garrantzitsua</p> <p>(4) Hizkuntza aberastasuna, kultura, kanta, artea, generoak... baina ni ez naiz literaturzalea</p> <p>(5) "Momentu libre bat dudanean momentu atsegin bat izateko bidea"; lasaitzeko modua</p> <p>(6) Idatzita aurkezten den obra. Bere funtzioak komunikatzea, ondorengoei erakustea, irakastea eta entretenitzea dira</p> <p>(7) Arte eta genero multzo bat da, mundua ikusteko ikuspegiak sortzea da bere funtzioa</p>	<p>Ahoz zein idatziz transmititzen den hitz multzoa.</p>	<p>(1) Idatzita ageri den obra, kultura sustatzeko egina</p> <p>(2) Egunerokotasunean dagoen zerbait, dibertitzeko eta ikusteko</p> <p>(3) Hitzetan oinarritutako lanen multzoa, genero multzoa</p>

	<p>(8) “Entretenigarriak diren liburuak aurki eskero, entretenimendu bat, bestela, klasean behartzen nauten liburu horiek dira literatura”</p> <p>(9) “Euskarari buruzko informazioa. Bere funtzioa gauza berriak ikastea”</p>		
Zein genero ezagutzen dituzu?	<p>(1) Komikia, marrazketak...</p> <p>(2) Poesia, eleberriak, komikiak, bertsolaritza, ipuinak, (auto)biografiak</p> <p>(3) Abestiak, koplak, antzerkiak, liburuak, telesailak, komikiak</p> <p>(4) Komikiak, bertsoak, kanta zaharrak, koplak, antzerkiak, nobelak</p> <p>(5) Olerkiak, saiakerak, antzezlanak, eleberriak, eleberri beltzak</p> <p>(6) Komiki, nobela, ipuina, poesia</p> <p>(7) Komikiak, album ilustratuak, narrazioak, poesia</p> <p>(8) Komikiak, album ilustratuak, ipuinak, nobelak</p> <p>(9) Ez dakit</p>	Komikiak, eleberriak, ipuinak, antzerkia, poesia...	<p>(1) Komikia, nobela, ipuina, poesia</p> <p>(2) Nobelak</p> <p>(3) Ipuinak, eleberriak</p>
Literaturaren lanketa: gustuko? Nahikoa landu?	(1) Bai, atsegin dut. Euskarari dagokionez gauza gehiago	(1) Ez zait literatura lantzea gustatzen	(1) Gustuko dut eta ez da asko lantzen, beste gauza batzuei

	<p>landu beharko lirateke: musika, idazleak...</p> <p>(2) Ez zait lantzeko modua gustatzen. Derrigortuta irakurtzeak ez du irakurzaletasuna pizten, gutako bakoitzaren interesa pizten duenak berriz bai</p> <p>(3) Ez du gustuko, ez da erakargarria teoria gailentzen delako. “Modu erakargarri baten emango bagenuen baliteke gehiago gustatzea”</p> <p>(4) “Ez. Ez dut uste literaturaren alde polita erakusten dutenik. Gauza aspergarri eta teorikoak lantzen ditugu.” Honek ez du irakurzaletasuna bultzatzen</p> <p>(5) Atsegin dut. Irakurtzea ikasteko bide bat da eta landuz gero jende gehiagok irakurriko zuen. Uste dut ez dela nahikoa lantzen, gaur egungoa batez ere. Euskal autore zaharrak ikasten ditugu gehien bat.</p> <p>(6) Ez dut lantzeko modua gustuko. Behartuta baino, bakoitzak bere gustukoa landu</p>	<p>(2) Ez da lantzen, irakurri eta azterketa egin, besterik ez</p>	<p>garrantzi handiagoa ematen zaielako.</p> <p>(2) Ikasteko baliagarria iruditzen zait eta ez da nahiko lantzen ez zaiolako behar duen garrantzia ematen</p> <p>(3) Ez dut gustuko eta literatura beharrean hobe litzateke idazmena eta ulermena lantzea.</p>
--	---	--	---

	<p>beharko luke. Asko lantzen da batez ere poesia eta nobela.</p> <p>(7) Gustatzen zait mundua beste ikuspuntu batetik ikustea ahalbidetzen duelako. Ez da nahikoa lantzen, beste gauza batzuei garrantzia ematen zaielako.</p> <p>(8) Ez dut atsegin irakasleek agindutako liburuak irakurtzen ditugulako, gure gustuak kontuan hartu gabe. Bai, nahikoa lantzen dela uste dut.</p> <p>(9) “Ez, aspergarria dela uste dut, egia da gauza batzuk interesgarriak direla baina orokorrean aspergarri da.”</p>		
<p>Literaturaren lanketa: ikasgelako metodologia egokia?</p>	<p>(1) Bai, baina gauza berriak landu beharko lirateke</p> <p>(2) Euskaran beste ikasgai batzuen baino gusturago aritu naiz. Ingelesean ez dugu literaturarik landu. Hala ere, froga egitea ez dut beharrezko ikusten, irakurzaletasuna bultzatzearen kontra doa</p> <p>(3) Modu erakargarriago batean emango beharko litzateke, ez horren teorikoan</p>	<p>Ingelesean ez da lantzen; euskaran azterketak soilik. Gaztelera sakonago lantzen dugu eta obra ulertzen saiatzen gara.</p>	<p>(1) 3 liburu irakurtzen ditugu eta nahikoa lantzen dugu</p> <p>(2) Ez dugu asko lantzen baina irakurritako liburuak gustatu zaizkit</p> <p>(3) Erantzunik gabe</p>

	<p>(4) Metodologia ez da egokia. Sustatu egin behar da “baina zaila egiten zait metodologia egokian pentsatzea”</p> <p>(5) Metodologia ez da egokia. “Gehienetan irakurtzen ditugun liburuak ez dira onak izaten (beste arloetan ere ez) eta uste dut honek jendea desmotibatzen duela</p> <p>(6) Esango nuke ikasleok ez diogula garrantzirik ematen baina irakasleek bai. Ez dut metodologia gustuko (behartuta eta froga)</p> <p>(7) Ez zaio behar besteko garrantzia ematen. Ingeles eta euskaran metodologia ez da ona, gazteleran gehiago lantzen da: obrak irakurri eta informazioa bilatzen da</p> <p>(8) Garrantzia ematen zaio baina lantzeko modua ez da egokia.</p> <p>(9) “Euskarazko arloan gaztelanian baino literatura gutxiago eman dugula uste dut. Baina erabilitako materiala egokia da”</p>		
Zer landuko zenuke?	(1) Musika	(1) Ez nuke landuko. Lantzekotan nerabeentzako lan interesgarriak.	Genero, autore eta estilo ezberdinak

	<ul style="list-style-type: none"> (2) Literaturaren alor guztiak. Ezagutzen ez dudana ezagutu eta ezagutzen dudana sakontzeko (3) Gaur egungo egoera (4) Mota guztietako kantak (5) Gaur egungo euskal literatura (6) Poesia izan ezik gainerako dena, adibidez gaur egungo abestiak (7) Euskal literatura, gerra garaikoak (8) Gustuko ditugun lanak. Niretzako nerabezeroari buruzko istorioak (9) Aspergarria ez den zerbait 	(2) Liburu baten lanketa sakonagoak egitea.	
Zenbat liburu irakurtzen dituzu?	<ul style="list-style-type: none"> (1) Irakasleak bidalitakoak: 3 eus + 1 gaz (2) Euskaraz 3-4, gazteleraz 7-8, ingelesez 0-1. Irakasleek zein nik aukeratutakoak (3) Irakasleak bidalitakoak: 3 eus + 1 gaz (4) Irakasleak bidalitakoak, gogo txarrez eta presaka: 3 eus + 1 gaz (5) 9 inguru, udan gehien bat. Horietako 3 irakasleak agindutakoak. 	Euskarazko 3 irakasleak aginduta eta gazteleraz edo ingelesez nik aukeratura.	<ul style="list-style-type: none"> (1) Irakasleak bidalitakoak, 3 euskaraz eta bat gazteleraz (2) 3na liburu euskaraz eta gazteleraz. Denbora falta (3) Ez dut irakurtzen

	<p>(6) Irakasleek agindutakoak eta pare bat gehiago</p> <p>(7) Irakasleak bidalitakoak: 3 eus + 1 gaz</p> <p>(8) Bat ere ez</p> <p>(9) Irakasleak bidalitakoak: 3 eus + 1 gaz</p>		
<p>Zein hizkuntzatan irakurtzen duzu?</p>	<p>(1) Euskaraz</p> <p>(2) Gaztelaniaz</p> <p>(3) Ez dut irakurtzen</p> <p>(4) Ez dut irakurtzen</p> <p>(5) Gaztelaniaz, baina euskaraz irakurtze gustatuko litzaidake</p> <p>(6) Gaztelaniaz eta ingelesez</p> <p>(7) Ez dut irakurtzen</p> <p>(8) Gaztelaniaz</p> <p>(9) Gaztelaniaz gehien bat</p>	<p>Gaztelaniaz edo ingelesez</p>	<p>(1) Euskaraz</p> <p>(2) Gaztelaniaz eta euskaraz</p> <p>(3) Erantzunik gabe</p>
<p>Zein <u>euskal</u> idazle ezagutzen dituzu?</p>	<p>(1) Bernardo Atxaga, Uxue Alberdi</p> <p>(2) Bernardo Atxaga, Patxi Zubizarreta, Uxue Alberdi, Miren Agur Meabe, Juan Kruz Igerabide, Joseba Sarrionandia, Jasone Osoro, Toti Martinez de Lezea</p> <p>(3) Uxue Alberdi, Alaine Agirre, Toti M. de Lezea, Bernardo Atxaga, Patxi Zubizarreta</p>	<p>(1) Jasone Osoro, Uxue Alberdi, Xabier Altube, Bernardo Atxaga, Toti Martinez de Lezea</p> <p>(2) Toti Martinez de Lezea</p>	<p>(1) Uxue Alberdi, Bernardo Atxaga, Toti Martinez de Lezea, Jasone Osoro, Iñaki Frieria</p> <p>(2) Bernardo Atxaga, Iñaki Frieria, Alaine Agirre, Uxue Alberdi</p> <p>(3) Jasono, Uxua Alberdi</p>

	<p>(4) Jasone Osoro, Uxue Alberdi, Toti M. de Lezea, Xabier Altube</p> <p>(5) Jasone Osoro, Uxue Alberdi, Toti M. de Lezea, Xabier Altube</p> <p>(6) Jasone Osoro, Uxue Alberdi, Toti M. de Lezea, Joseba Sarrionandia, Miren Agur Meabe, Bernardo Atxaga</p> <p>(7) Jasone Osoro, Uxue Alberdi, Toti M. de Lezea, Bernardo Atxaga</p> <p>(8) Toti M. de Lezea, Jasone Osoro</p> <p>(9) Bernardo Atxaga</p>		
--	---	--	--

Galderak	Gizonak		
	Lerro zientifikoa: ikasle 1	Lerro teknologikoa: 9 ikasle	Lerro humanistikoa: 2 ikasle
Literatura: zer da eta zein funtzio ditu?	Entretanimendurako arte bat	<p>(1) Kulturaren alorreko parte da entretenitzeko eta zerbait ikasteko helburu duena.</p> <p>(2) Irakastea helburu duen kulturaren parte bat</p>	<p>(1) Entretanimendurako arte bat</p> <p>(2) Komunikatzeko eta informazioa transmititzeko balio du</p>

		<p>(3) Liburuak. Entretenitzeko funtzioa duena; ez da garrantzia duen zerbaít.</p> <p>(4) Arte bat da entreenitzeko funtzioa duena</p> <p>(5) Artea da. Idazlearen ideiak transmititzea du helburu.</p> <p>(6) Kultura eta hizkuntza bermatzea</p> <p>(7) Kultura bermatzeko, komunikatzeko eta ezagutza edukitzeko tresna.</p> <p>(8) Liburuak, poesia, komikia... genero multzo bat lexikoa aberasteko balio duena.</p> <p>(9) Komunikatzeko tresna eta kultura bermatzeko</p>	
Zein genero ezagutzen dituzu?	Poesia, ipuina, nobelak	<p>(1) Istorioak, biografiak, nobelak, nobela beltzak, amodiozko nobelak, autobiografiak, istorio laburrak</p> <p>(2) Liburuak, biografiak, nobelak</p>	<p>(1) Komikia, prentsa, nobelak</p> <p>(2) Komikia, ipuina, eleberria</p>

		<p>(3) Poesia, ipuinak, bertsoak</p> <p>(4) Poesia, nobelak, kominikiak</p> <p>(5) Nobelak, ipuinak</p> <p>(6) Komikiak, liburuak, prentsa aldizkariak</p> <p>(7) Nobela, ipuina</p> <p>(8) Komikia, liburua, bertsoak, poesiak</p> <p>(9) Komikia, album ilustratuak, ipuinak</p>	
<p>Literaturaren lanketa: gustuko? Nahikoa landu?</p>	<p>Ez, aspertu egiten naiz</p>	<p>(1) Batzuetan bai, kontu interesgarriak deskubritu eta gauza berriak ikasi daitezkeelako imajinazioa landuz. Ikastolan gehiegi lantzen da euskal literatura.</p> <p>(2) Ez dut gogoko literatura lantzea, ez zait irakurtzea gustatzen. Izan ere, nik literatura literaturan, nobeletan... [...] Ikastlan hiru liburu irakurri ditugu.</p>	<p>(1) Aspergarri iruditzen zait, baina “oso garrantzitsua da irakurtzea kultura, burua zabaltzeko... azken finean pertsona aberasteko.”</p> <p>(2) Aspergarria iruditzen zait</p>

		<p>(3) Ez dut gogoko, ez zait entretenigarria iruditzen eta gainera ez dut uste etorkizunean zerbaiterako balioko didanik. Gelan nahikoa lantzen dela uste dut, adibidez urte honetan 3 liburu irakurtzera behartu gaituzte.</p> <p>(4) Ez batzuetan ulertezina delako. Nahikoa lantzen da hizkuntzen inguruan ikasten den gauza bakarra delako.</p> <p>(5) Ez dut atsegin; irakurtzen ditugun liburu gehienak aspergarriak dira. Ez da nahikoa lantzen literatura zer den argi ez dugulako.</p> <p>(6) Ez dut gustoko letrak eta irakurtzea ez zaidalako gustatzen; baina ez da nahikoa lantzen jendearen kulturaren ikusten da.</p> <p>(7) Ez dut gustoko zenbakiak nahiago ditudalako. Nahikoa lantzen da txikitatik ikusten dugulako</p>	
--	--	--	--

		<p>(8) Aspergarria iruditzen zait. Hainbat hilabetetan eman dugu klasean, baita liburuak irakurri ere.</p> <p>(9) Ez zait gustatzen eta asko lantzen da.</p>	
<p>Literaturaren lanketa: ikasgelako metodologia egokia?</p>	<p>Bai, egokiak dira</p>	<p>(1) Gehiegizko garrantzia ematen zaio euskal literaturari, autore ezberdinak landu eta guk ez ditugu aukeratu; hainbat liburu irakurtzera behartzen baikaituzte.</p> <p>(2) Gelan literaturari garrantzia handia ematen zaio, txikitatik liburuak irakurtzera bultzatu gaituzte eta DBHn adibidez euskal idazleen inguruan informazioa bilatzeko eskatzen digute.</p> <p>(3) Garrantzia ematen zaio, baina uste dut erabilitako metodologia ez dela egokia; izan ere, liburuak irakurtzen behartzea idazle euskaldunen izenak ikastera behartzea, ez da modurik egokiena. Gazteleran ere Antonio Machado, Lorca... ikasteak ez digu ezer aportatzen.</p>	<p>(1) Ez zaio garrantzirik ematen eta metodologia ez da egokia</p> <p>(2) Garrantzia ematen zaio baina “ordenagailua gehiago erabili beharko zela uste dut”</p>

		<p>(4) Bai. Bai</p> <p>(5) Bai. Metodologia eta jarduerak egokiak dira, baina materiala txarra izaten da gehienetan.</p> <p>(6) Ez behar beste, baina bai. Metodologia ez da egokia oso astun transmititzen digutelako.</p> <p>(7) Bai. Metodologia zahartua dagoela uste dut.</p> <p>(8) Gehiegi. Ariketak eginez, informazioa bilatuz eta gero ikasiz baina ez gazteleran bezala.</p> <p>(9) Bai. Ez</p>	
Zer landuko zenuke?	Ez zait gustatzen	<p>(1) Gaur egungo autore eta genero ezberdinak, aintzinako autoreak bakarrik landu beharrean.</p> <p>(2) Literaturan gaur egungo gizarteak nolako bilakaera izan duen.</p> <p>(3) Ez litzaidake literatura lantzea gustatuko</p> <p>(4) Genero gehiago lantzea</p>	<p>(1) Ezer ez</p> <p>(2) Komikiak</p>

		<p>(5)Berdin zait, baldin eta erabilitako materiala (liburuak adibidez) onak izaten badira.</p> <p>(6)Ez litzaidake gustatuko lantzea, nahiz eta hizkuntza maila hobetu.</p> <p>(7)Gauza orokorrenak bakarrik lantzea gustatuko litzaidake. Ez delako beharrezkoa adibidez idazle baten bizitza ikustea.</p> <p>(8)Liburuak irakurtzea nahikoa da.</p> <p>(9)Ezer ez, hobeto ez lantzea.</p>	
Zenbat liburu irakurtzen dituzu?	Aurten 3, guztiak irakasleek bidalitakoak	<p>(1)Euskaraz 3, Gaztelanian 2, nire kabuz 2-3</p> <p>(2) Euskaraz 3, Gaztelanian 2</p> <p>(3) Euskaraz irakasleak behartutakoak eta gaztelaniaz oporretan hainbat irakurtzen ditut</p> <p>(4)Euskaraz 2; beste hizkuntzetan bat ere ez.</p> <p>(5)Euskaraz 3; 20 beste hizkuntzetan. Euskarazkoak</p>	<p>(1) 0</p> <p>(2) 0</p>

		<p>irakasleak aukeratzen ditu besteak nik.</p> <p>(6) Ez ditut liburuak irakurtzen</p> <p>(7) Eskolan behartutakoak irakurtzen ditut.</p> <p>(8) Euskaraz 2 edo 3 beste hizkuntzetan 1 gehienez. Irakasleak ematen dizkigutenak</p> <p>(9) Euskaraz 1; beste hizkuntzetan 0. Irakasleek aukeratuta.</p>	
Zein hizkuntzatan irakurtzen duzu?	Euskaraz eta gazteleraz	<p>(1) Gaztelaniaz</p> <p>(2) Euskaraz eta Gazteleraz</p> <p>(3) Gazteleraz</p> <p>(4) Euskaraz</p> <p>(5) Gazteleraz</p> <p>(6) Zerbait irakurriz gero, euskaraz</p> <p>(7) Klasean irakurtzen dugun hizkuntzan</p>	<p>(1) Ez dut irakurtzen</p> <p>(2) Gaztelaniaz</p>

		<p>(8) Euskaraz, eta pixka bat gazteleraz</p> <p>(9) Euskaraz</p>	
<p>Zein <u>euskal</u> idazle ezagutzen dituzu?</p>	<p>Joseba Sarrionandia</p>	<p>(1) Uxue Alberdi</p> <p>(2) Uxue Alberdi</p> <p>(3) Jasone Osoro eta Bernardo Atxaga</p> <p>(4) Joseba Sarrionandia</p> <p>(5) Uxue Alberdi</p> <p>(6) Uxue Alberdi, Joseba Sarrionandia</p> <p>(7) Bat bera ere ez</p> <p>(8) Jasone Osoro, Joseba Sarrionandia, Bernardo Atxaga</p> <p>(9) Uxue Alberdi</p>	<p>(1) Joseba Sarrionandia</p> <p>(2) Uxue Alberdi</p>

Ikasleen galdeketetatik ondorioztatutakoa

DBH 4.mailan hiru lerrotako (zientifikoa, humanistikoa eta teknologikoa) ikasleei egin genien galdetegia; guztira 20 ikaslek hartu zuten parte. Horietatik 9 izan dira emakumeak eta 11 gizonak.

- **Emakumeen erantzunak:**

Literaturaren funtzio nagusia entretenitzea dela uste dute ikasle gehienek; baita ideia multzo bat transmititzeko modua dela ere.

Generoen ezagutzari dagokionez, ikasle gutxi batzuk aipatu dituzte genero nagusiak zeintzuk diren, azpi generoen zerrenda luzea egin duten arren gehienek; ikasle batek aitortu du ez duela ezagutza handirik generoen inguruan. Izan ere, ia narratiba (nobela bere hitzetan) soilik lantzen eta irakurtzen dutela esan baitu.

Literaturaren lanketa nahikoa egiten den edo gustuko dutenaren inguruko iritziak askotarikoak dira. Ikasle gehienek ez dutela gustuko azpimarratu dute, egiten duten lanketa astuna eta aspergarria izaten dela argudiatuz. Hala ere, askoren ustetan, irakasteko modua aldatuz gero, plazer handiagoz jasoko lukete.

Ikasgelan irakasleek erabilitako metodologia, ikasle bati izan ezik, guztiei desegokia iruditzen zaie. Lehen aipatu bezala, gehienei aspergarri eta astuna iruditzen baitzaie irakasleek literatura lantzeko duten modua. Horri, ikasle batek azterketa egiteko soilik ikasten dutela gaineratzen dio; eta beste batek erabilitako “materiala” eta “jarduera motak” desegokiak direla.

Zer landuko luketen galdetuta, musika eta bertsolaritza izan dira ikasle gehienei gelan lantzea gustatuko litzaiekeena; baita egungo joeren berri izatea ere.

Ikastolako ikasle gehienek irakasleak bidalitako liburuak irakurtzen dituzte soilik; batek bakarrik irakurtzen du irakasleak bidalitakoaz gain beste zerbait. Hala ere, irakurtzen duen hori gaztelaraz irakurtzen duela aitortu du. Ez da harrizkoa, beraz, irakurtzeko darabilten hizkuntza gaztelera izatea.

Ezagutzen dituzten euskal idazleen inguruan galdetuta, gehien errepikatu den idazlea Toti Martínez de Lezea izan da. Aipatuenean artean, bigarren postua Mikel Hernandezek luke.

- **Gizonen erantzunak:**

Gizonei literaturaren funtzioaren inguruan galdetuta, erantzunak emakumeen antzekoak izan dira: entretenitzea eta ezagutza espresatzea edo/eta transmititzea.

Generoen ezagutzari dagokionez, ikasle batek ere ez du genero nagusien aipamenik egin; nahiz eta azpigenero zenbait zerrendatu dituzten hauek ere.

Literaturaren lanketa gustuko duten galdetuta, bi ikaslek izan ezik, beste guztiek ez dute atsegin hori lantzea; gizonezko gehienei aspergarria eta nekagarria iruditzen baitzaie horren lanketa egitea. Beraz, gehienek nahikoa eta gehiegi lantzen dela erantzun dute. Lanketa egitea atsegin duen batek aipatu du, hala ere, ikaskideek ez dutela literatura ulertzen, eta horregatik ez zaiela hori lantzea gustatzen.

Metodologiari dagokionez, gizonak ere emakumeen erantzun bertsuak eman dituzte: literatura lantzeko erabiltzen den metodologia ez da aproposa. Nahiz eta kasu honetan ikasleak erdibituta dauden. Beste erdiek metodologia egokia erabiltzen dela uste dute.

Emaitza horren aurrean zer landuko luketen galdetuta, gehienek ez luketela ezertxo ere landuko erantzun dute; nahiz eta pare bat ikasle egon diren, Etxepare landuko luketela erantzun dutenak.

Gizonen kasuan ere, irakasleek bidalitako liburuak soilik irakurtzen dituzte gehienek. Eta kasu honetan, emakumeetan ez bezala, euskaraz, gaztelaniaz eta ikasle batek portugesez ere irakurtzen omen du.

Ezagutzen dituzten idazleen inguruan galdetuta, erantzunak askotarikoak izan dira. Hala ere, idazle errepikatuenak Bernardo Atxaga, Mikel Hernandez, Bernart Etxepare eta Toti Martínez de Lezea izan dira.

Batxilergoko 2. mailan hiru lerrotako 26 ikaslek, 14 emakume eta 12 gizonak, erantzun dute gure galdetegia. Erantzun aberatsagoak eman dituzte emakumeek oro har, eta horien artean, espezialitate zientifikoa ikasi dutenek eman dituzte erantzun osatuenak.

- **Emakumeen erantzunak:**

Literaturaren inguruko ezagutzari dagokionez, genero eta autoreei buruz galdetu diegu. Emakumeen artean, hiruk besterik ez dituzte bost genero baino gehiago aipatu, eta batek

bakarrik aipatu ditu hiru genero nagusiak, hots, poesia, dramatika eta prosa. Lau autore zerrendatu dituzte batez beste, eta Jasone Osoro, Uxue Alberdi eta Toti Martinez de Lezea izan dira aipatuena.

Literaturaren irakaskuntzari buruz galdetu diegunean gehienek gustuko ez dutela esan dute. Emakumeen erdiak baino gehiagok ikastolan erabiltzen den metodologiak literatura aspergarria bilakatzen duela azaldu dute, hala ere, gehienek literatura atsegin dutela eta erakargarria egiten zaiela ere aipatu dute. Gehienek literaturari garrantzi handirik ematen ez zaion irudipena daukate, eta horietako batzuk metodologiaren aldaketa beharra azpimarratu dute, ikastolak irakurzaletasuna bultzatu eta literaturaren alde gozagarria erakutsi behar duelako haien ustetan.

Literaturan, beraz, zer landuko luketen galdetu diegu hurrena. Emakumeek literatura erakargarriagoa egiteko bi proposamen plazaratu dituzte: musikagintzarekin lotzea bata, eta egungo literatura eta gaiak lantzea bestea. Bestalde, gustuko dituzten lanei tarte bat eskaintzea ere eskatu dut pare batek.

Azkenik, irakurzaletasunari buruzko galdera egin diegu. Aurtengo ikasturtean irakasleak bidali dizkien hiru liburuak guztiek irakurri dituzte, baina gutxiak irakurri dute beste libururen bat. Emakumeen artean erdiak baino gutxiagok irakurtzen du ikastolaz kanpo, eta, oro har, 10 liburu edo gutxiago irakurtzen dituzte urtean zehar. Aukeratzen dituzten liburu gehienak gaztelaniaz idatzitakoak izaten dira.

- **Gizonen erantzunak:**

Ezagutza literarioari buruz gizonek hiru genero aipatu dituzte batez beste, eta inork ez du antzerkia aipatu. Bestalde, galdera honi emandako “liburua,” “amodiozko nobelak” edo “prentsa” bezalako erantzunek literatura eta generoak definitzeko orduan gabeziak dituztela erakusten dute. Alde handia egon da autoreei buruzko erantzunetan, gizonek, batez beste, bat baino ez baitute aipatu. Horien artean, Uxue Alberdi eta Joseba Sarrionandia izan dira aipatuena.

Gizonen artean, batek baino ez du gustuko literatura irakurri eta lantzea, gainerako guztiei aspergarria iruditzen zaie, eta hainbaten ustez, urtean hiru liburu irakurrita nahikoa lantzen da literatura. Emakumeek ez bezala, gehienek literaturari garrantzi gehiegi ematen zaiola baieztatu

dute. Hala ere, irakasteko erabiltzen den metodologia ez dela egokia ere azpimarratu dute, arloa oso teorikoa eta astuna delako.

Zer lantzea gustatuko litzaiekeen galdetu diegunean, gizonen artean, gehienek literatura lantzea beharrezkoa ez dela azpimarratu dute, eta horrenbestez, ez luketela ezer landuko. Landuko luketenek gaur egungo gaiak, generoak eta obrak irakurri eta aztertzea gustatuko litzaiekeela esan dute.

Irakurzaletasunari dagokionez, gizonen artean ere erdiak baino gutxiagok irakurtzen du bere kabuz, eta irakurtzeko zaletasuna duenak ez ditu hiru liburu baino gehiago irakurtzen urtean. Norberak aukeratutako liburu hauek gaztelaniaz izan ohi dira oro har. Horrenbestez, euskaraz irakasleak bidalitako liburuak irakurtzen dituzte soilik.

6. ONDORIOAK ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Literaturaren irakaskuntzari dagokionez, argi ikusi dugu ez dela lanketa egokia egiten eta irakasleek haiek aitortu digute hutsune nabarmena ikusten dutela gaur egun literaturaren irakaskuntzan. Batetik, literatura ez da arlo beregaina eta hizkuntzarekin lotuta lantzen da. Azken horren mesedetan erabiltzen da, eta horrek kalte egiten dio literaturaren irakaskuntzari. Askotan, literatur testuak erabiltzen dituzte ikasleek, baina gramatika edo idatzizkoaren ulermena lantzeko euskarri gisa soilik. Testu horiei ez zaie alderdi ludiko zein estetikutik begiratzen. Ikusi dugunez, Euskara eta Literatura ikasgai lehentasuna Hautaprobari ematen zaio, eta bertan ez denez literatura modu zuzenean lantzen, irakasleek garrantzi handiagoa ematen diote hizkuntzaren bestelako alderdiak lantzeari: gramatika, berridazketak, aditzak eta abar. Gaztelanian, adibidez, literaturak pisu nabarmena du Hautaproban, eta Batxilergoko 2. mailan askoz garrantzi handiagoa ematen zaio literaturaren lanketari. Ikasgai horretan irakurketa liburuak nola lantzen diren ikusteko aukera izan dugu, eta begi-bistakoa da Euskaran egiten diren liburu-frogak baino eraginkorragoak direla (hala aitortu digute irakasle zein ikasleek).

Bestetik, literaturaren irakaskuntza ez dago sistematizatuta, hau da, ez dago urtez urteko programa zehatzik adostuta. Ondorioz, literaturaren lanketa ez dago bermatuta, eta irakaslearen esku geratzen da zer eta nola irakatsiko den, zenbat denbora eskainiko zaion eta nola ebaluatuko den. Maiz, literatura denbora badago lantzen da soilik. Ikusi dugunez, Almen guneko Batxilergoko 2. mailan, hiru liburu irakurtzen dituzte urtero, derrigortuta, eta horien azterketa

egiten dute gero. Hortik at, aurten, literaturaren lanketari azken egunetan tarte bat eskaini zaio, denbora apur bat izan dutelako, baina berau ez da oso sakona izan.

Derrigorrezko irakurketak aipatu ditugula, ezin aipatu gabe utzi, oro har, ikasleek ez dutela irakurketaz gozaten, edo hori da, behintzat gehienek esan digutena. Jakin izan dugunez, irakasleak ere hortaz jakitun dira. Lanaren hasieran aipatu dugun bezala, eta literaturan adituak direnen esanei jarraiki, literaturaren funtzio behinena irakurlearengan gozamina sortzea izan beharko litzateke. Hori onartzen badugu, azpimarratzekoa da Euskara eta Literatura ikasgaiak ez duela helburu hori erdiesten.

Orain arte azaldutakoak erakusten du Heziberri eta Euskal Curriculumak zehazten dituzten helburuetatik urrun gaudela oraindik. Bertan aipatzen diren gai ugari ez dira jorratzen, literatura analisirako baliabide eta testuinguru gabe landu ohi baita. Literaturaren ikaskuntzak ez du ez garrantzi, ez helburu bera ikastolan lantzen diren hizkuntzetan, eta ondorioz, jasotako galdetegiek erakutsi diguten bezala, ikasleek ez dute literaturari buruzko ikaskuntza sakon eleaniztuna garatzen.

Colomerri (1991) jarraiki, lanaren hasieran defendatu dugu literaturaren irakaskuntzatik hezkuntza literarioa jauzi egin behar dela. Iruditzen zaigu ikasleak literatur testuak ulertzeko gaitasun eta konpetentziak garatu behar dituela, hau da, jakintza edo konpetentzia literarioa erdietsi behar duela, ondoren literatur testuak ulertzeko. Gaitasun horiek lantzea ezinbestekoa iruditzen zaigu, izan ere, zenbat eta ezagutza handiagoa izan, orduan eta gozamen handiagoa lortuko du irakurleak (testuek ezkututzen dituzten mekanismoak deszifratuko dituelako eta ordura arte eskuraezinak zitzaizkion alderdiak erdietsiko dituelako). Horretarako ezinbestekoa da ikasleak ezagutza teorikoz janztea, baliabide literarioak lantzea eta horiek ariketa praktikoekin uztartzea. Uste dugu hezkuntza literarioan dagoela gakoa eta hori dela bidea literaturaz gozatu ahal izateko. Ez hori bakarrik, Lomasi (2002) jarraiki, hezkuntza literarioa pertsona orok duen eskubidea da, eta iruditzen zaigu eskolak hori bermatu beharko lukeela.

Ildo beretik, azpimarratu nahiko genuke eskolak eskubide berdintasuna bermatzeko eta literatura demokratizatzeko balio beharko lukeela, hots, ikasleek haien testuinguruan ezagutuko ez lituzketen liburuak eskura jartzeko balio beharko luke eskolak. Egia da gaztetxoei beren interes eta gustuekin bat datozen obrak aukeratzen utzi behar zaiela, baina, bestalde, gauza jakina da halakoetan ikasleek beti antzeko liburuak hautatzen dituztela, ezagutzen dituztenak soilik. Literaturaren demokratizazioa erdiesteko, geroago sakonduko dugun legez, ezinbesteko

baldintza da ikaslea ezagutzea: gustuak, irakurketa ohiturak, zaletasunak, gaitasun linguistiko zein literarioak, beharrak eta abar.

Konfiantzaren Pedagogiari helduz, hasteko, aipatu beharra dago pedagogia hori dela Arizmendi Ikastolaren ardatz nagusia, eta literaturak ere bertako hainbat alor eta helburu lantzen lagundu dezakeela. Izan ere, ikasle bakoitzari norbere garapen pertsonala eta kritikotasuna lantzen lagundu diezaioke. Horretaz gain, bizitzako beste hainbat alorren inguruko ezagutza zabalagoa ere lor dezake ikasleak. Hortaz, pertsona, kasu honetan ikaslea, oinarri izanda eta bakoitzaren esperientzia kontuan hartuta, (pedagogia soziokonstruktibista) beraiei egokien etor dakiekeen testu eta liburu motak proposatu diezazkie irakasleak.

Hala ere, esandakoa zuzen egin dadin beharrezkoa izango da bakoitzaren gaitasunak kontuan hartzeaz gain, garatu ditzaketen gaitasunak ere identifikatzen jakitea. Marko teorikoan aipatu bezala, horrek eragin zuzena izango baitu beraien autokontzeptuan, autoestimuan eta bokazioen aurkikuntzan ere. Hala baina, horrek irakasleak kontuan izateko baldintza bat dakar bere baitan: ezin da ikaslearen eskolako bizitza eta etxeko bizitza banatu; hots, bien arteko lankidetzaren beharrezkoa izango da literatura lantzerako orduan ere. Ikasle guztiek ez baitituzte etxean ohitura berak izango, ezta liburu kopuru bera, ez eta ikasketa maila bereko edo irakur ohitura berdineko gurasoak ere. Gauzak horrela, literatura lantzerako orduan ere ikasleen erritmo ezberdinak lantzea garrantzitsua izango da, beraien ikaskuntza prozesua arrakastatsua izan dadin nahi badugu.

Ikastolako testuinguruari helduz, Konfiantzaren Pedagogiari esker, egun ikastolan dauden espazio ireki eta zabalak literatura landu eta sormena garatzeko leku ezin hobekak izan daitezke. Gelatik atera eta modu ezberdin eta dinamikoago baten irakasteko eta ikasteko aukera ematen baitu. Aipatutako hori guztia, baina, alferrikakoa litzateke ikasle eta irakasleen arteko komunikazioa ona ez balitz. Irakasleak ikasleari literaturaren eduki, ideia eta sentipenak modu egokian komunikatzen asmatzea izan daiteke horko ateak irekitzen lagundu diezaiokeen giltza.

Hala ere, komunikazioa baino lehenago, komunikatu beharreko hori diseinatzen lagunduko duen ikuspuntu metodologiko egokia behar du irakasleak. PTL metodologiaren helburua ikasleek ikaskuntza sakona lortzea dela esan dugu, horretarako, ezagutzak barneratu ondoren, beste testuinguru batean erabiltzeko gaitasuna garatu behar dute, eta horrela, ikasitakoa beste ikasgai edo arlo batzuetara transferitzeko gai izango dira. Ikasleek literaturari buruzko klaseetan jasotako teoria eta ezagutzak ez dituzte erabilgarri ikusten, eta ondorioz, horietako

asko aspertu egiten dira. Arazo horren gakoa praktikotasun falta izan daiteke, hau da, ikasleek teoria jasotzen dute, buruz ikasten dute, baina ez dute horren aplikazioa ikusteko aukera edo testuingururik izaten. Ikaskuntza sakona egitera iristeko urratsetako bat da ikasitakoari buruzko gogoeta egitea, baina ikusi dugun bezala, literaturaren lanketa mota horretan ez da obrei edo literatur korronteei buruzko gogoeta lantzen, ez da horretarako baliabiderik ematen. Esaterako, Batxilergoko 2. mailan, Gaztelania eta Literatura ikasgaietan XX. mendeko obra espainiarrak lantzen dira. Bertan ikasten dena Euskara eta Literatura arloan ikasten denaren osagarri izan daiteke, baina gaur egun edukiak eta metodologia ez datoz bat, eta ondorioz, ezinezkoa da ikasgai horien arteko transferentziak egitea.

Gogoeta zein ezagutzen transferentziak egiteko egoera horiek sortu behar dituzte irakasleek, literaturaren ikaskuntza interesgarria eta erabilgarria izan dadin. Ariketa praktikoa izan daitezke benetako ikaskuntza eta literaturan alfabetatuak diren ikasleak lortzeko bidea.

Beraz, gure ikerketa xume honetan, literaturaren irakaskuntza hizkuntzen arloan bigarren mailan geratu dela ikusi dugu eta hizkuntzaren mesedetan erabiltzen dela. Hala ere, Arizmendi Ikastolaren markoa ezin egokiagoa iruditu zaigu kalitatezko hezkuntza literarioa aurrera eramateko. Bateragarriak dira, beraz, Konfiantzaren Pedagogiak eta Heziberrik, Euskal Curriculumarekin batera, proposatutako bi markoak.

Amaitzeko, ikusi ditugun hutsuneak kontuan hartuta, hobetzeko bide batzuk proposatzea zilegi dela deritzogu. Aipatu beharra dago proposamen hauek Arizmendi Ikastolako Almen guneari begira egingo ditugula. Hala ere, aipatuko direnak beste ikastetxe batzuetara estrapola daitezkeela sinesten dugu. Ikusi dugunez, irakasle talde indartsua dago ikastolan, eta badute literaturarekiko sentsibilitatea. Hala ere, egun, ez dago lehentasunen zerrendan; eta beraz, beste arlo batzuek hartu diote aurre horri. Konponbide eraginkorrena Hautaprobak literaturari garrantzia ematea litzateke, baina aukera hori gure esku ez dagoenez, ezinbestekoa iruditzen zaigu irakasleek garrantzia ematea eta denbora eskaintzea literaturaren lanketari. Hori izan daiteke prestigioa emateko lehen urratsa. Aurrera egin aurretik, aipatzekoa da lanketa hori ez dela urte osora luzatu behar nahitaez. Hiruhileko batean, eta urtero era sistematikoan, landuko dela bermatuz gero, aski dela iruditzen zaigu. Bestalde, ikusi dugu irakasle taldea indartsua izateaz gain, hobekuntzan eta berrikuntzan interes handia duela talde bezala eta hezkuntza hobetzeko elkarlan handia dagoela. Oso barneratuta daukate ikasleek kompetentzietan

oinarritutako ikasketa burutu behar dutela, eta horretarako, irakasleek testuinguru aproposak sortu behar dituztela. Horren ondorio dira azken urteotan Konfiantzaren Pedagogiaren baitan egin duten eraldaketa arkitektoniko eta metodologikoa. Horrek eustazpi ezin hobea ematen du literatura lantzeko. Iruditzen zaigu aukera horiek balia daitezkeela literatura ardatz izango duen diziplina arteko proiektuak gauzatzeko. Ezin dugu ahaztu literatura hizkuntza guztiek partekatzen duten arloa dela, eta beraz, loturak egin daitezke hizkuntza batetik bestera. Lan honetan defendatu dugu ikaskuntza literarioa beharrezkoa dela eta ikasleek gogoko ez dituzten zenbait obren lanketa eta jarduera egin beharko dituztela konpetentzia literarioa erdiets dezaten. Hala ere, hasieratik aipatu dugun moduan, literaturaren helburu behinena gozamina sortzea izan beharko litzateke gure uste apalean, eta beraz, hori bultzatu beharko luke irakasleak. Horretarako, jarduera berritzaile eta erakargarriagoak sortzeko ahalegina egin beharko luke ikasleen arreta pizteko⁵. Eman beharreko hurrengo urratsak mota honetako diseinuekin lotuta daudela iruditzen zaigu eta modu apalean bada ere, urrats horien garapenean lagundu dezaketen proposamen batzuk bildu ditugu jarraian datorren taulan.

	Jarduera	Azalpena
Gela barruko dinamikak	Mahai inguruak edo literatur tertuliak	Lan bat irakurri bitartean, edo ondoren, eztabaida gidatuak antola daitezke ikasgelan. Horrela, testua bera landu daiteke, bere mamia (eta ez soilik ikasleak liburua irakurri duen edo ez).
	Solasaldiak idazlearekin	Ikasle guztiek liburu bera irakurtzen badute, idazlearekin tertulia egin daiteke, ondoren, bakoitzaren irakurketa eta hausnarketak idazlearekin elkarbanatuz. Sortzaileak gertuko sentitzeko modu erakargarri bat izan liteke dinamika hau.
	Ikus-entzunezkoen sorkuntza	IKTak eta literatura uztartzen ditu ariketa mota honek. Ikus-entzunezkoetara oso ohituta daude ikasleak eta nazioartean sona handia dute booktrailerrek. Epeldek (2019) proposatzen duen “bideolit” delakoa ere ariketa

⁵ Eranskinen atalean masterrean zehar egindako eta batxilergoko ikasleekin lantzeko jarduera batzuk bildu ditugu, baita ikasleekin partekatzeko baliabide batzuk ere.

		egokia izan daiteke. Kasu honetan, ikasleek irakurri duten lana interpretatu eta osagarria izango den bideoa sortu beharko dute.
	Liburu trukea	Ikasle-irakasle edo ikasleen artean liburuak trukatzeko aukera ematea.
	Liburu gomendioak	Jakin badakigu gauzak ahoz aho igarotzen direla eta beraz, eragin handia izan dezake dinamika horrek. Ikasleei tarte bat eskain diezaiekegu, haien gustuko liburuak parteka ditzaten.
	Idazleak ikastetxera gonbidatu	Euskal Idazleen Elkartek eta argitaletxe ugari antolatzen dituzten ekimen hauetan parte hartzea aberasgarria da, batetik, ikasleek idazleak gertutik ezagutzeko aukera izaten dutelako, eta, bestetik, idazlearekin irakurritako obrari buruz eztabaidatzeko aukera dutelako.
	Sormen ariketak	Taldean zein banaka, genero ezberdinetako lanak sortzeko ariketak proposatu daitezke. Literatura beste arte batzuekin, marrazketa edo pinturarekin esaterako, uztartzeko aukerak sortu daitezke ariketa mota honetan. Eranskinetan txertaturik daude sormen ariketa posible batzuk.
	Irakurraldi kolektiboak	<p>Ahoz gorako irakurketa hainbat eratarara egin daiteke:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Irakasleak irakurri: Dinamika honek ikasleen irakurzaletasuna bultzatzeko funtziona dezake. Irakasleak 5 minutu har ditzake egunero kapitulu baten hasiera edo pasarteren bat irakurtzeko. Ikasleek pasarte gogoko badute, gerta liteke etxera itzultzean liburua irakurtzen hastea.

		<ul style="list-style-type: none"> Ikasleek irakurri: Saio bakoitzean ikasle batek har dezake gogoko duen pasarte laburren bat ahoz gora irakurtzeko ardura. Dinamika hau ez dago irakurzaletasuna bultzatzera bideratuta bereziki, baina bai ikasleek bilaketak egin ditzaten pentsatua.
		<p>Etxean egin beharreko bakarkako irakurketa bultzatu beharrian, gelan eskain diezaiokegu tarte bat irakurketari:</p> <ul style="list-style-type: none"> Taldekako edo bikotekako irakurketa Irakurketa gidatua ezagutza handiagoa duen ikasle edo irakasle baten laguntzarekin
Gelaz kanpoko dinamikak	Herriko irakurle klubean parte hartu	Esteka honetan aurki daitezke Euskal Herrian dauden irakurle taldeak, probintziaka eta herrika sailkatuta. Irakasleak ikasleak anima ditzake irakurle taldeetan parte hartu dezaten.
	Herriko edo ikastetxeko liburutegira bisita	Ikasleek liburutegian dauden aukeren berri izan dezaten, bertara gerturatzea ezinbestekoa da. Era berean, liburutegiak antolatzen dituen ekintzen berri izatea ere garrantzitsua da. Ikastetxeko liburutegia herriko liburutegia baino askoz eskuragarriagoa izan liteke, baina herrikoan baliabide gehiago egon ohi da.
	Sormen udalekuetara, negulekuetara eta antzeko ekimenetara joatea bultzatu	Esteka honetan aurkitu daiteke ekimen horietako baten adibide bat.

	<p>Maila txikiagoko ikasleei ipuin kontaketak</p>	<p>Transmisorako ariketa interesgarria litzateke dinamika hau. Nagusiak literatura lan bat barneratuko du ondoren txikiagoei gustuz transmititzeko. Horrela, gainera, adin ezberdineko ikasleen hartu-emana sustatu dezakegu; baita ikastetxeko komunitatearekin harremanak hobetu ere.</p>
	<p>Poesia errezitaldiak</p>	<p>Ikasleek, beraiek edo beste autore batzuek idatzitako poemak aukeratu, landu eta errezitatuko dituzte. Ikasleentzako erakargarriagoa izateko musika gehi dakioke emanaldiari.</p>
	<p>Literatur lehiaketak</p>	<p>Sormen lanak egitera bultzatzeko herriko eta Euskal Herriko literatur lehiaketen berri eman eta ikasleak bertan parte hartzera animatu genitzake. Era berean, ikastetxe barruan ere antola daitezke mota honetako ekimenak.</p>

7. BIBLIOGRAFIA

- Adingabe Transexualen Familien Elkarte (2019). Esku hartze protokoloa. *Naizen.eus*.
[Web-orria]. Hemendik jaso (2019/06/05ean):
<https://naizen.eus/eu/lagundu/eskolan/esku-hartze-protokoloak/>
- Alberdi, U. (2018ko martxoaren 9a). Gazteak, literatura eta irakasle entusiastak. *Uberan.eus*.
[Web-orria]. Hemendik jaso (2019/05/20an):
<http://uberan.eus/?kaia/item/gazteak-literatura-eta-irakasle-entusiastak>
- Alonso, I. (2008). *Euskal literaturaren irakaskuntza hego euskal herriko batxilergoan*.
[Doktorego-tesia]. UPV/EHU.
- Altube, M. (2018ko azaroaren 30a). Changemaker izendapena lortu du Arizmendi ikastolak. *Goiena.eus*.
[Web-orria]. Hemendik jaso (2019/05/29an):
<https://goiena.eus/debagoiena/1542122948596-changemaker-izendapena-lortu-duen-lehen-ikastola-da-arizmendi>
- Alvarez, L. A. (2018ko otsailaren 21a). ¿Tienen futuro las carreras de Humanidades?. *Elmundo.es*.
[Web-orria]. Hemendik jaso (2019/06/05ean):
<https://www.elmundo.es/papel/historias/2018/02/21/5a8c6b6c268e3e24178b45ce.html>
- Antero, A. (2015). *Konfiantzaren pedagogia: Arizmendi ikastolaren markoa*. Arrasate Gipuzkoa: Arizmendi.
- Apalategi, U. (1998). Atxaga post-obabarra edo literatura autonomoaren heteronomizazioa. *Uztaro*, 27, 63-82. Hemendik jaso (2019/05/29an):
http://www.ueu.es/download/artikulu/uztaro27_4.pdf
- Arizmendi Ikastola. (2019). Arizmendi Ikastola: Hezkuntza kooperatiba euskalduna [Web orria]. Hemendik jaso (2019/05/03an): <http://www.arizmendi.eus/eu/>
- Aunión, J. A. (2008ko ekainaren 30a). Vago, a letras; empollón, a ciencias. *Elpais.com*.
[Web-orria]. Hemendik jaso (2019/06/05ean):
https://elpais.com/diario/2008/06/30/sociedad/1214776807_850215.html
- Berri Txarrak. (2003). Emazten fabore II. In Libre. [CD]. Iruñea: Gor Diskak.

- Colomer, T. (1991). De la enseñanza de la literatura a la educación literaria. *Comunicación, lenguaje y educación*, 9, 21-32. Hemendik jaso: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=126236>
- Colomer, T. (1998). *La formación del lector literario. Narrativa infantil y juvenil actual*. Madril: Fundación Germán Sánchez Ruipérez.
- Council of Europe. (2019a). Content and Language Integrated Learning. [Web orria]. Hemendik jaso (2019/04/29an): <https://www.ecml.at/Thematicareas/ContentandLanguageIntegratedLearning/tabid/1625/language/en-GB/Default.aspx>
- Council of Europe. (2019b). A Pluriliteracies Approach to Teaching for Learning. [Web orria]. Hemendik jaso (2019/04/29an): <https://pluriliteracies.ecml.at/>
- Coyle, D. (2015). Strengthening integrated learning: Towards a new era for pluriliteracies and intercultural learning. *Latin American Journal of Content and Language Integrated Learning*, 8(2), 84-103, doi:10.5294/laclil.2015.8.2.2
- Cummins, J. (1981). Empirical and theoretical underpinnings of bilingual education. *Journal of education*, 163(1), 16-29.
- Epelde, I. (2019). Irakurmena. *Zeren baskoak*. [Blog testua]. Hemendik jaso (2019/05/29an): <https://sites.google.com/view/zerenbaskoak/euskara-klaseak/irakurmena?authuser=0>
- Garcia, F. J. (2003). Las relaciones escuela-familia: un reto educativo. *Infancia y aprendizaje*, 26 (4), 425-437. Hemendik jaso: http://repositori.uji.es/xmlui/bitstream/handle/10234/162864/garc%C3%ADa_2003_Re1.pdf?se%20quence=1&isAllowed=y
- Gartzia, G. (2008). *Jendaurrean hizlari: (ahozko) komunikazio gaitasuna lantzeko eskuliburua*. Irun: Alberdania.
- Gardner, H. (1995). *Inteligencias múltiples*. Barcelona: Editorial Paidós.

Gardner, H. (2000). *Intelligence reframed: Multiple intelligences for the 21st century*. UK: Hachette.

Halbwachs, M. (1968) [1950], *La mémoire collective*. Paris: Presses Universitaires de France.

Halbwachs, M., (1994) [1925], *Les cadres sociaux de la mémoire*. Paris: Albin Michel.

Hezkuntza Saila, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, Kristau Eskola & Sortzen-
Ikasbatuaz. (2006). Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculuma: Euskal
Curriculuma baloratzeko eta hobetzeko proposamena. Hemendik jaso:
<http://www.euskalcurriculuma.eus/sites/default/files/dokumentuak/EUSKARA.pdf>

Hezkuntza Saila. (2014). Heziberri 2020: Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoa.
Hemendik jaso :
[http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri_2020/eu_heziberr/adjuntos/
Heziberri_2020_e.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri_2020/eu_heziberr/adjuntos/Heziberri_2020_e.pdf)

Hezkuntza Saila (2016). Batxilergoko curriculuma. Hemendik jaso:
[http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri_2020/eu_2_proyec/adjuntos/
Batxilergoko_curriculum_oso.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri_2020/eu_2_proyec/adjuntos/Batxilergoko_curriculum_oso.pdf)

Hik hasi (2016). Bernardo Atxaga: "Sortzea lotzen dut alaitasunarekin eta bizipozarekin, hori
da arteak ematen dizuna". *Hikhasi.eus*. [Web-orria]. Hemendik jaso (2019/06/05ean) :
[http://www.hikhasi.eus/Albistegia/20161221/bernardo-atxaga-quotsortzea-lotzen-dut-
alaitasunarekin-eta-bizipozarekin-hori-da-arteak-ematen-dizunaquot](http://www.hikhasi.eus/Albistegia/20161221/bernardo-atxaga-quotsortzea-lotzen-dut-alaitasunarekin-eta-bizipozarekin-hori-da-arteak-ematen-dizunaquot)

Ikaselkar Argitaletxea (2015). *Eki ikasmaterialen markoa*. Hemendik jaso:
<http://www.ikaselkar.eus/eki/eki-ikasmaterialen-markoa/>

Juaristi, P. (2003). *Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak*. UPV/EHUko
argitalpen zerbitzua. Hemendik jaso: [https://web-
argitalpena.adm.ehu.es/pdf/USWEB035407.pdf](https://web-argitalpena.adm.ehu.es/pdf/USWEB035407.pdf)

Kohan, S. A. (2002). *La escritura como búsqueda. Una guía para transformar los conflictos
internos en material literario*. Barcelona: Alba.

- Lomas, C. (2002). La educación literaria en la enseñanza obligatoria. *Kikirikí: Cooperación educativo*, 64, 43-50. Hemendik jaso: http://www.quadernsdigitals.net/datos/hemeroteca/r_1/nr_490/a_6664/6664.html
- Malagon, A. (2013). *Lasai, ez da ezer gertatzen*. Elkar: Donostia.
- Matxain, K. (2015eko maiatzaren 31n). Literatura irakaskuntzan: nola egin aurre ikasgelan testuliburuaren aginteari, *Argia*, 27-29. Hemendik jaso (2019/05/28an): <https://www.argia.eus/astekaria/docs/2463/pdf/27-29.pdf>
- Meyer, O., Coyle, D., Halbach, A., Schuck, K., & Ting, T. (2015). A pluriliteracies approach to content and language integrated learning – mapping learner progressions in knowledge construction and meaning-making. *Language, Culture and Curriculum*, 28(1), 41-57. doi: 10.1080/07908318.2014.1000924
- Meyer, O. & Coyle, D. (2017). Pluriliteracies Teaching for Learnings: conceptualizing progression for deeper learning in literacies development. *European Journal of Applied Linguistics*, 5(2), 199-222. doi: 10.1515/eujal-2017-0006
- Olaziregi, M. J. (2000). Literaturaren irakaskuntza bigarren hezkuntzan. Testu-Iruzkinetarako metodologia. *Hegats*, 28, 39-73. Hemendik jaso (2019/05/28an): <https://www.idazleak.eus/fitxategiak/dokumentuak/aldizkariak/hegats28.pdf>
- Pascual, J. A. (2012ko abuztuaren 24a). Vicedirector de la RAE atribuye el "desprestigio" de las Humanidades a que prima la idea de "tener dinero". *20 minutos*. Hemendik jaso (2019/06/05ean): <https://www.20minutos.es/noticia/1570429/0/>
- Txakur Gorria (2018). *Lauhazka. Kaiera bat jarraitzeko*. Autoedizioa.
- Txakur Gorria (2016). *Hizteria. Eskuko hiztegia*. Autoedizioa.
- Sarasua, J. (2013). *Hiztunpolisa. Euskaltasunaren norabideaz apunteak*. Iruñea: Pamiela.
- Sarriugarte, D. (2019ko maiatzaren 12a). Ainara Azpiazu Aduriz. Iruditeria anitzagoen alde. *Argia*, 2643, 12-16. Hemendik jaso (2019/05/28an): https://www.argia.eus/astekaria/docs/2643/azala/argia_2643.pdf
- Suarez, C. & Mutuberria, M. (2014). *Zerua Berun*. Markina-Xemein: Ibaizabal.

Swartz, R., Costa, A., Beyer, B., Reagan, R., & Kallick, B. (2008). *El aprendizaje basado en el pensamiento*. España: SM.

8. ERANSKINAK

1. ERANSKINA: LITERATURA LANTZEKO HAINBAT BALIABIDE ETA JARDUERA

1.1. BALIABIDEAK

Inork ez dezala esan irakurtzea garestia denik!

- Booktegi-ren webgunean (<http://booktegi.eus>) mota guztietako euskarazko liburuak aurkitu eta dohainik deskarga daitezke. Horrez gain, elkarrizketak ikus daitezke eta baita ekitaldien berri izan ere.
- Liburuak doan Susa argitaletxeko web-orrian: <http://www.susa-literatura.eus>.
- Euskal poesiaren ataria den Basquepoetry webgunean (<http://basquepoetry.eus>) poema ugari aurki daitezke.
- Dokumentu trukea egin daiteke ikastetxean. Ikasle bakoitzak etxean duena zerrenda dezake, eta ikastetxeko gelara eraman. Horrela, dokumentuak ikasleen artean truka ditzakete.
- Herriko eta ikastetxeko liburutegietan material ugari eskura daiteke, doan. Udal liburutegietan ekimen ugari antolatzen dira eta horien gaineko informazioa web-orrian, triptikoetan edo panel informatiboetan egon ohi da herritar guztion eskura. Obren argitalpenen berri izan dezakegu, baina baita irakurle-taldeen, hitzaldien, kontzertuen, erakusketen edo bestelako ekimenen berri ere.

Baliabide guztiak infografia batean bilduta:

<https://view.genial.ly/5ce2ad3d9d5aca0f71ee2843/horizontal-infographic-lists-pkp>.



Bestelako baliabideak

- Atal honetan eskolan literatura lantzeko baliagarriak izan daitezken hainbat baliabide bildu ditugu.
- Ahozko euskal literaturari buruzko webgune interesgarria (<http://ahozkoliteratura.eus>). Azalpenak, bideoak eta testuak biltzen ditu.
- Basquepoetry: <http://basquepoetry.eus/>. Hemen, XV. mendetik hasi eta gaur egun arteko zenbait poesia aurki ditzakegu. Poesia horiek egileka antolatuta daude.
- Badok: <https://www.badok.eus/>. Berria egunkariak sortutako euskal musikaren ataria da. Euskal musikari gehienen lan eta kantak entzuteko aukera dago bertan. Horretaz gain, kantagintza eta musikaren historia, elkarrizketa eta kontzertuen berri ere ematen du atariak.
- Etxepare Rap blogean (<http://www.argia.eus/blogak/etxepare-rap/>) hainbat euskal idazle klasikoren testuak aurki daitezke, musikatuta.
- Xerezaderen artxiboa: <http://xerezade.org/irakurketa/kristo-irakiarra>. Bertan, hainbat testu entzuteko aukera dago.

1.2. JARDUERAK

Jarraian, literatura modu gozagarrian eta betiko metodologiatik at lantzeko bururatu zaizkigun proposamenetako batzuk eskainiko ditugu.

1. Album ilustratua landuko dugu ariketa honetan. Gela erdiari irudi bat emango diogu eta testu bat sortu beharko dute horrekin lotuta. Beste erdiari, berriz, testua emango diogu eta irudi bat sortu beharko dute. Gogora ezazue Ainara Azpiazu ilustratzaileak testuaren eta irudiaren arteko loturari buruz dioena:

Sortzaileak erabakitzen du nolakoa izan daitekeen. Garbi dagoena da ez duela errepikakorra izan behar, irudiak ez duela errepikatu behar testuak esaten duena, ezta irudiak adierazi testuak esaten duena. Hortik aurrera hainbat harreman sor daitezke. Batetik, kontraesana sor daiteke bien artean, eta horren bidez interesa piztu. Edo, bestela, irudiaren bidez historia zabaldu daiteke, bigarren mailako istorioak sortuz, adibidez. Niri interesgarriak zaizkit testu eta irudien artean jolasa sortzen dutenak, irakurlearekin konplizitatea sortzen dutenak (Sarriugarte, 2019: 14).

A aukera

“ Ez dakit zer galdu dudan, noiz eta nola. Ez dakit zu galdu ote zintudan nire isilaldi luzeetako batean. Negarrik ere ez zenuen egin. Garuneko zoko ezkutuenan gorde zenituen malkoak. Ez dakit zer egin duzun zure baitako itsaso beltzarekin. Ez dakit errefuxiatu baten haurrek nola, kontatu ezin dituztenen zerrendak osatu ote dituzun eta eta ez ote diozun inori esan non bizi zaren eta norekin. Ez dakit zugana iritsi ote daitekeen begiak itxita, lur izoztua zeharkatu behar ote den.

Zein da zugana hurbiltzeko behar dudan aitzakia? ”


Suarez, C. eta Mutuberria, M. (2014) *Zerua Berun*. Ibaizabal: Markina-Xemein.

B aukera



Txakur Gorria-ren (2018) irudi bat.

2. Hitzaren sorkuntza jolasa. Ikasle bakoitzari kolorezko lau txartel emango dizkiegu. Bertan, aditz bat, izen bat, adjektibo bat eta atzizki bat idatzi behar dute. Jarraian, ezkerreko ikaskideari txartel guztiak pasako dizkiote; hark, gutxienez, bi txartel erabilita, hitz bat sortu dezan. Ondoren, sortutakoa ezkerreko ikaskideari pasatuko dizkiote. Azkenik, jasotako hitzaren definizioa asmatu beharko dute (saia daitezela originalak izaten, eta hitza asmatua badago, bila diezaiotela beste esanahi bat).
3. Joan zaitez unibertsitateko txokoren batera. Aurki ezazu pertsona bat eta imajina ezazu nolakoa den, nondik datorren, zer egin zuen atzo gauean, zer pentsatzen ari den... eta idatz ezazu testu motz bat, nahi duzun generoa erabiliz.
4. Mikroipuinak istorio laburrak dira. Laburtasun horrek hainbat hari erakutsi ohi ditu, eta horiei helduz, irakurketa ugari egin daitezke. Ana Malagonen 2013ko *Lasai, ez da ezer gertatzen* liburutik aukeratu dugu “Bi zaldi” ipuina:



Galderak:

Nor da hiltzailea?

Zergatik hil du?

(140. orria)

5. Poesia xuxurlatua deituko diogu ariketa honi. Espazio eroso eta zabal batean egitea proposatzen dugu. Testu zatiak, poemak, mikroipuinak ... lurtean zabalik utziko ditugu, eta ondoren, ikasle bakoitzak horietako bat hartuko du. Ikasle bakoitzak tutu luze bat izango du eta nahi duen ikaskideari aukeratutako pasartearen belarrira xuxurlatuko dio.
6. Poesia eta bideogintza uztartuko ditugu ariketa honetan. Ikasleek, taldeka zein banaka, poema bat aukeratu dute eta horren osagarria izango den ikus-entzunezkoa sortu beharko dute.

7. Denboran jauzi handi bat eman, XVI. mendera bidaiatu eta autore klasiko baten testua landuko dugu ariketa honetan. Bernat Etxeparek 1545ean idatzitako *Emazten fabore* poema irakurriko dugu lehenik. Ikusiko dugunez, gaurkotasuna galdu ez duen testua da, hainbat euskal taldek bere egin eta bertsiotu dutena. Batetik, Etxepare Rap-ek egindako bertsiola entzungo dugu (beltzez jarri ditugun pasarteak kantatzen ditu soilik). Bestetik, jatorrizko testua Berri Txarrak taldeak 2003an argitaratutako *Emazten fabore II* abestiarekin alderatuko dugu.

EMAZTEN FABORE (Bernat Etxepare, LVP, 1545)

Emazteak ez gaitz erran ene amorekatik;
gizonek utzi balitzate, ez laidite faltarik.

Anitz gizon ari bada andrez gaizki erraiten,
arizki eta desoneski baitituzte aipatzen,
ixilika egoitea ederrago litzate;
andrek gizoneki bezi hutsik ezin daidite.

Zuhur gutik andregatik gaizki erran diroite,
haiez ongi erraitea onestago lizate.
Emazteak zerengatik gaitz erranen dirate?
Handi eta xipi oro haietarik girade.

Balentria sinplea da andren gaitzerraitia,
bat gaitz erran nahi bada, oro bardin sartzia;
ixil ladin nahi nuke halako den guzia;
damu gaitzik emazteak hari eman ditia.

**Andren gaitzerraile orok behar luke
pentsatu
bera eta bertze oro nontik ginaden sortu;
ama emazte luien ala ez nahi nuke
galdatu;
amagatik andre oro behar luke goratu.**

**Gizonaren probetxuko emaztea beti da,
oro behin haietarik sortzen gira
mundura;
sortu eta hil ginate, hark haz ez
baginitza;
haziz gero egun oroz behar haren aiuta.**

Haren eskuz osoan behar soinera eta jatera,
eri denean andre gabe galdu gizon egurra;

hil badadi, hura nola, nor doake gainera?
Ordu oroz behar tugu; ez da heben zer duda.

**Emazterik ez den lekuian ez dakusat
plazerik,
ez gizona ez etxea behin ere xahurik,
etxean den gauza oro gaizki
erreglaturik;
parabizuian nahi ez nuke emazterik ez
balitz.**

Emazteak ez dut entzun lehen gizona
jaukirik,
bana gizonen emaztea beti ere lehenik;
gaixteria jalgiten da beti gizonetarik;
zeren, bada, daraukate emazteari hogenik?

**Bertuteak behar luke gizonetan
handiago,
emaztetan nik dakusat ongiz ere
gehiago;
mila gizon gaixtorik da emazte
batendako,
gizon baten mila andre bere fedean dago.**

Hek gizoner beha balite, ez litzate bat onik,
ez diroite deuskai denik utzi jauki gaberik,
bana anitz emazte da eskapatzen zaienik,
anderetan zeren baita bertutea hobenik.

**Nik ez dantzut emazteak bortxaturik
gizona,
bana bera zoraturik andreari darraika;
zenbait andre hel baledi onerizte
hargana,**

zein gizonek andreari emaiten du ogena?

Jeinkoak emaztea maite mundu oroz
gainetik;
zerutika jaitsi zedin hartzaz amatorurik;
emazteak ezarri du gure anaieturik;
andre oro laudatzeko haren amorekatik.

Irudi zait, emaztea dela gauza ezia,
donario guzietan guziz gauza emia;
gaoaz eta egunaz ere badu plazer handia;
hartzaz gaizki erraitea bilania handia.

Munduian ez da gauzarik hain eder ez plazentik

**nola emaztea gizonaren petik
buluzkorrik;
beso biak zabaldurik dago errendaturik,
gizon horrek dagiela hartzaz nahi
duienik.**

Jo badeza dardoaz ere gorputzaren erditik,
ainguruiak bano hoboro ez larrake
gaizkirik,
bana dardoaz ematurik, zauri' ere sendoturik,
bere graziaz ezarten tu elgarreki baketurik.

Nor da gizon modorroa hartzaz orit ez dena
eta gero halakoa gaitzerraiten duiena?
Ez da gizon naturazko hala egiten duiena.
Zeren ez du ezagutzen hala ongi egina?

Iturria: <http://basquepoetry.eus/?i=poemak&b=3>.

Hona hemen Etxepare Rap-ek musikatutakoa
(<http://dbh3zallabhi.blogspot.com/2017/09/>) eta Etxeparearen testuaren gainean Berri
Txarrak taldeak egindako abestiaren doinua eta letra
(<https://www.youtube.com/watch?v=U3QCeINz76I>).

Emazten fabore II

(Berri Txarrak, Libre, 2003, Gor Diskak)

Gaur ez al zaizu iruditu garaiak ez direla
batek nahi bezain azkar beti aldatzen?

Gaur
bi miloigarren aldiz harrikoa egiten ari zela
beste bat joka hil dute.

Gaur ez dago minutuko isilunerik
mendeak daramazkigu isilik.

Gaur
bi miloigarren aldiz laguntza eskatzen ari zela
beste bat joka hil dute.

Gaur ez dago minutuko isilunerik
mendeak daramazkigu isilik
gaur ez burulerrorik
kasu solte bat da
langile zendu hori bezala.

Gaur ez dago minutuko isilunerik
mendeak daramazkigu isilik.

Iturria: <http://www.berritxarrak.net/diskografia/emazten-fabore-ii/>.

Etxepareren jatorrizko testua aztertzeko (edo beste edozein testu aztertzeko), hona
hemen Joxerra Gartzia (2008) proposatutako baliabide poetiko-erretorikoen zerrenda:

FIGURAK	TROPOAK
<p>1) Dikziozkoak</p> <p>a) Fonetiko-fonologikoak</p> <p>i) Aliterazioa</p> <p>ii) Hitz-jokoak</p> <p>(1) Antanaklasia</p> <p>(2) Kalanburra</p> <p>(3) Paranomasia</p> <p>iii) Onomatopeia</p> <p>b) Sintaktikoak</p> <p>i) Anadiplosia</p> <p>ii) Anafora</p> <p>iii) Asindetona</p> <p>iv) Aposiopesia</p> <p>v) Elipsia</p> <p>vi) Enalagea</p> <p>vii) Enumerazioa</p> <p>viii) Enumerazio kaotikoa</p> <p>ix) Epanadiplosia</p> <p>x) Epanalepsia (germinazioa)</p> <p>xi) Epifora</p> <p>xii) Hiperbatona</p> <p>xiii) Isokolona (paralelismoa)</p> <p>xiv) Kiasmoa</p> <p>xv) Klimaxa</p> <p>xvi) Poliptoton</p> <p>xvii) Polisindeton</p> <p>xviii) Zeugma</p> <p>c) Pentsamenduzkoak</p> <p>i) Antitesia</p> <p>ii) Apostrofea</p> <p>iii) Entimema</p> <p>iv) Galdera erretorikoa</p> <p>v) Hiperbolea</p> <p>vi) Ironia</p> <p>vii) Konparazioa (simila)</p> <p>viii) Litotea</p>	<p>1) Metafora</p> <p>a) Katakresia</p> <p>b) Sinestesia</p> <p>c) Alegoria</p> <p>d) Sinboloa</p> <p>2) Metonimia</p> <p>a) Sinekdokea</p> <p>b) Antonomasia</p> <p>c) Definizioa</p> <p>d) Eufemismoa</p>

ix) Oximorona x) Paradoxa xi) Parafrasia xii) Pleonasma xiii) Preterizioa xiv) Tautologia xv) Zalantza xvi) Zuzenketa	
--	--

Baliabide poetiko-erretorikoen zerrenda tipiko bat, Gartzia (2008: 194) lanetik moldatua.

2. ERANSKINA: IRAKASLEARI EGINDAKO ELKARRIZKETA

1. Zenbat urte daramatzazu euskara eta literatura ikasgaia ematen?
2. Literaturari dagokionez, eta batxilergora mugatuta, aldaketarik izan al da (materialari dagokionez, ikasleen literatur-ohiturei dagokienez, irakur-liburuen hautaketa, literatura irakasteko metodologia mota...)?
3. Gaur egun, zein da euskara eta literatura ikasgaiaren ardatz nagusia?
4. Uste duzu berdin lantzen dela literatura hizkuntza guztietan?
5. Literatura nahikoa lantzen dela uste duzu? Zein hutsune ikusten duzu?
6. Egon al da noizbait aukerarik literaturarekin lotutako beste ikasgaiaren bat (literatura unibertsala, literatur tailerra, antzerkia)?
7. Irakurzaletasuna bultzatzeko programarik baduzue?
8. Zein helbururekin egiten dituzue literatur liburuen proposamenak?
9. Zergatik hobesten duzue gaur egun duzuen liburuen lanketa?
10. Ikastetxeko hizkuntza proiektuak eta marko metodologiko nagusiak (konfiantzaren pedagogia) aukerarik ematen al du literatura lantzeko (espazio zabalak, norberaren burua ezagutzea eta alderdi kritikoa lantzea, proiektu interdiziplinarrak...)?
11. Sorkuntzak zein toki dauka gelan?
12. Zerbait gaineratu nahiko zenuke?

3. ERANSKINA: LIBURU-PROBAK

Bilbao-New York-Bilbao

1. Nobela honen berezitasun nagusia hauxe da:
 - A. ikuspegi klasikoa du narratzailearen aldetik.
 - B. nobelaren idazketa prozesua bera da kontatzen dena bertan.
 - C. ez du ez hankarik ez bururik.
2. Non dago narratzailea kontaketa garatzen doan bitartean?
 - A. Trenean, gehienetan.
 - B. Liburuaren azaleko itsasontzian.
 - C. Hegazkinean.
3. Liburuaren azken aldera zerrenda bat agertzen da:
 - A. New Yorkeko kaleen izenak agertzen dira bertan.
 - B. Azken urteotako euskal idazleak agertzen dira.
 - C. Ondarroako alturako ontziak datoz bertan.
4. Nola antolatu du idazleak narrazioa?
 - A. Anekdota bilduma gisa.
 - B. Narrazio bakar eta jarraian agertzen da liburuan zehar.
 - C. Bi hari narratibo daude, azkenean bat egiten dutenak.
5. Zein izan daiteke idazlearen asmo nagusia obra honetan?
 - A. Herriari dion maitasuna adieraztea.
 - B. Aurrekoen belaunaldiarekin bat egitea.
 - C. Maitale bati bere amodioa adieraztea.
6. Zein da nobelaren kokapena?
 - A. Europako hainbat herrialde.
 - B. New Yorkeko kale nagusiak.
 - C. New Yorkera egiten den bidaia batean.
7. Zeintzuk dira autorearen estiloa definitzeko hitz egokienak?
 - A. Estilo barroko eta korapilatsua.
 - B. Estilo arkaiko eta ulergaitza.
 - C. Estilo sinplea eta eraginkorra.
8. Zergatik kartzelaratu zuten idazlearen aitita, Liborio, Bilbon, gerra zibilaren hasieran?
 - A. Frankisten aldekoa izateagatik.
 - B. Gorri komunista izateagatik.

- C. Euskal abertzalea izateagatik.
9. Alde grafikoak eta irudiak badu garrantzirik lan honetan?
- A. Azalean bai, baina barruan ez dago inongo irudirik edo grafikorik.
 - B. Ez, batez ere testu hutsak du garrantzia.
 - C. Bai, irudiak, txartelak, panelak... tarteka-marteka agertzen ditu autoreak.
10. Nor da Angus MacLeod?
- A. New Yorkeko finantza munduko pertsonaia ospetsua.
 - B. 1970eko hamarkadan, euskal arrantza-ontziak harrapatzen ziharduen eskoziarra.
 - C. Irlandar abertzale euskalzalea.
11. Zein da egia?
- A. Aitaita Liboriok San Agustin izeneko ontzia erosi zuen, eta izena aldatu zion “Dos amigos” deituz.
 - B. Aitaita Liborioren ontzia “Dos amigos” deitzen zen, berea eta bere lagun minarena zelako.
 - C. Aitaita Liboriok “Dos amigos” ontzia erosi zuenean, dagoeneko horrela deitzen zen.
12. The Harvard Museum of Natural History-n
- A. Beirazko landareak daude, beira-arasetan sartuta.
 - B. Beirazko ontziak daude, beira-arasetan sartuta.
 - C. Beirazko koadroak daude, beira-arasetan sartuta.
13. Rockallera
- A. Joaten ziren Ondarroako gazteak, lana aurkitzera
 - B. Joaten ziren Ondarroako arrantzaleak, arrantza ona zelako.
 - C. Joaten ziren Ondarroako arrantzaleak, bertako ontzietan lanera.
14. Protagonistaren aita(k)
- A. Bazuen Stornoway izeneko herri batean beste emazte bat eta lau seme-alaba
 - B. Bere seme-alabei kontatzen zien bazuela Stornoway izeneko herri batean beste emazte bat eta lau seme-alaba.
 - C. Alargundu, eta Stornoway izeneko herri batean beste emazte bat hartu zuen. Harekin lau seme-alaba izan zituen.
15. Gernikako bonbardaketan gertatu zena koadro batean adierazteko
- A. Picassori deitu zion Legezko Gobernuak, eta hark egin zuen lana.
 - B. Picassori baino lehenago Artea margolariari deitu zion Legezko Gobernuak, eta hark egin zuen lana.

C. Picassori baino lehenago, Artea margolariari deitu zion Legezko Gobernuak, baina Picassok egin zuen lana.

16. Zein da egia?

- A. Ricardo Bastidak Ondarroan uda igarotzen zuen, eta Mexikora erbesteratu zen. Arkitektoa zen.
- B. Aurelio Arteta margolaria zen, eta Mexikora ihes egin zuen bere familiarekin gerra garaian.
- C. Bastida eta Arteta Ondarroan jaiotako txikitako lagun minak ziren.

4. ERANSKINA: IKASLEEI EGINDAKO GALDETEGIA

Jarraian beteko duzuen inkesta Master Bukaerako Lanerako erabiliko dugu, ez zaie Ikastolako irakasleei emango. Zintzotasunez betetzea eskertuko genizueke.

Maila:		
Espezialitatea:		
Emakumea	Gizona	Ez binarioa
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>

1. Zer da literatura zuretzat? Zein funtzio dauka?
2. Zein genero (komikia, album ilustratuak...) ezagutzen dituzu?
3. Literatura ikasgaia atsegin duzu?
4. Batxilergoan literaturari garrantzia ematen zaio? Literatura ikasteko erabilitako metodologia, materialak eta jarduera motak egokiak iruditzen zaizkizu?
5. Literaturan zer lantzea gustatuko litzaizuke?
6. Zenbat liburu irakurtzen dituzu urtero? Zuk aukeratzen dituzu edo irakasleek ematen dizkizute?
7. Zeintzuk dira zure obra gogokoenak?
8. Zein hizkuntzatan irakurtzen duzu, oro har?
9. Zein euskal idazle ezagutzen dituzu?